



## "Durangoko euskal presoen egoera Euskal Herriko egoeraren erakusgarri da"

Sarek amaitutzat eman du euskal presoek sakabanaketa eta aro berri bat zabaldu du presoek etxeratzean eragiteko. Miren Erdoiza Mujika Durangoko Sareko kideak eta Bego Atxa Azurmendi Sareren bozeramaile zornotzarrak presoek egungo egoera zein den azaldu dute. • 23



### "Sari hau talde osoaren lorpena da"

**Kirola** • Elorrio Futbol Taldeko Itsasne Larruskain Euskal Ligako pitxitxia da eta Canteira Deportibak banatzen duen Urrezko Baloia irabazi du. • 20



### Ane Labakak umorea aztertuko du Hitzez eta Ahotsez

**Kultura** • Hitzez eta Ahotsez bederatzigarren edizioan umorea aztertuko dute; Ane Labaka umoreaz arituko da gaurko berbaldean. • 18

### Trana-Matienan dena prest dago San Prudentzio jaiei ekiteko

**Abadiño** • Gutxi falta da denboraldiko lehenengo jaiak martxan ipintzeko. Donien Atxa jasota, datorren egunean ekingo diete Traña-Matienako jaiei. Gazte Eguna, paella txapelketa, azoka, kontzertuak eta jai giroa uztartuko dira sanprudentzioetan. • 13-16





**Miren Erdoiza  
Mujika**

Durangoko Sare

DURANGO | 1994

**Bego Atxa  
Azurmendi**

Sareko bozeramailea

ZORNOTZA | 1982

## “35 urteko sakabanaketaren ondoren, euskal presoek etxeratzeak ezin du beste 30 urte iraun”

Sakabanaketa amaituta, Sarek ziklo berri bat zabaldu du. Euskal presoek etxeratzea izango da bere lan ildo nagusia

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Sarek amaitutzat eman du euskal presoek sakabanaketa. Ziklo bat zarratu eta aro berri bat hasi du presoek etxeratzeari begira. Astelehen honetan, Durangoko Hizkuntza Eskolan berbaldia eman dute egoera juridikoa zein den azaltzeko. Miren Erdoiza Mujika (Durango, 1994) Durangoko Sareko kidea da, eta beste hainbat kidegaz batera berbaldia antolatzen ibili da. Bego Atxa Azurmendi (Zornotza, 1982) Sareko bozeramailea da eta bera arduratu da berbaldia gidatzeaz.

**Zein arrasto utzi die sakabanaketak euskal presoek?**

**Bego Atxa Azurmendi:** Salbuespen legedia dela eta, espetxe zigorrak bizi osorako kondenatuen parekoak

dira. Presoak familiengandik ezin urrutiago egon dira eta horrek eragin handia utzi die arlo emozionalean. Gainera, kontuan hartu behar da legearen kontrako egoera batean egon direla. Hau da, Europako Justizia Auzitegi Nagusiak berak adierazi zuen presoek euren etxetik ahalik eta gertuen bete behar zutela zigorra. Horrelako egoera emozional batean egonda, legearen kontrako egoera batean egonda, eta hainbeste urtean, horrek egundoko ezegonkortasuna sortu die presoek.

**Eta presoek senide eta gertukoek zelan eragin die sakabanaketak?**

**B.A.A.:** Familiak esaten digute milaka eta milaka kilometro egin behar izan dituztela errepidean,

horrek dakarren arrisku guztiaz. Errepidean hainbat zauritu eta hildako egon da, eta, alde horretatik, eurak ere dispartzioaren biktima dira. Eta horiek guztiak gogoan izan behar ditugu. Bestalde, koronabirusaren garaian eten egin zizkieten bisitak, eta asko izan dira urte hauetan guztietan espetxeetako funtzionarioen jarrera salatu duten familiak, bai presoenganako jarreragaitik eta baita bisitara doazenenganako jarreragaitik ere. Adibidez, presoek hainbat lagunek esan digute kilometro mordera egin eta gero eragozpenak izan dituztela bisita egiteko.

**Begirada Durangon ipinita, zein da bertako euskal presoek egoera momentu honetan?**

**Miren Erdoiza Mujika:** Durangoko egoera Euskal Herriko egoeraren argazki guztiz erakusgarria da. Momentu honetan zortzi preso daude. Eurretari bat baldintzapeko askatasunean dago, beste bat hirugarren graduan, eta gainerako guztiak salbuespen legedien menpe. Gorka Palacios, Lola López, Gregorio Vicario, Josu Narváez eta Itziar Alberdi Zaballako kartzelan daude (Araba). Gorka Palacios, adibidez, 20 urteko espetxealdia beteko du aurten, baina salbuespen lege bat dela eta ez diote Frantziako estatuan preso egondako urte kopurua kontabilizatzen. Beraz, oso

kondena luzea du aurretik. Zelanbait esateko, bizi osorako kondena baten parekoa. Lola Lopezek 72 urte ditu eta antzeko egoera bizi du. Frantziako espetxeetan egondako urteak ez dizkiote errekonozitzen, eta horren arabera 2046an irtengo luke kalera. Gregorio Vicario bihotzeko arazo bat diagnostikatu zioten orain urte gutxi. Bere adina eta osasun egoera ez dira nahikoa arrazoi izan espetxetik ateratzeko. Josu Narváez eta Itziar Alberdi 2014an atxilotu zituzten. Kondenaren

**“Gaur egun 110 bat preso egon beharko lukete hirugarren graduan, baina 33ri baino ez zaie izaera hori aitortzen”**

laurdena beteta daukate, eta, horrenbestez, kalean egon behar lukete, beste fase batean egoitea dagokie. Iurdan Martitegi Martuteneko kartzelan dago (Donostia). 20 urte zituela sartu zuten espetxean, eta salbuespen legearen arabera ia 80 urte gaz aterako litzateke. Egoera iluna da ume bi dituela kontuan hartuta. Azkenik, Gorka Lupiañez baldintzapean aske dago eta Guillermo Merino hirugarren graduan.

**Salbuespen legeak daudela diozue. Zeintzuk dira salbuespen lege horiek?**

**M.E.M.:** Gaur egun, trikimailu berri bat ipini dute martxan. Presoek gradu erregresioak aplikatzen hasi zaizkie. Presoek hirugarren graduko izaera ezartzen dieten arren, erregresioak indarrean ipintzen hasi dira, horregaz presoak espetxera bueltatzeko. Lehen, fiskaltzak zeukan hirugarren gradua errekurritzeko aukera, eta helegite hori ebatzi arte presoak kanpoan egon zitekeen, hirugarren graduan. Gaur egun, ez. Helegitea aurkeztuta, zuzenean dabilta hirugarren graduko presoak espetxera bueltatzen. Astebete edo hamabost egun kalean egon ostean, espetxera bueltatzen dituzte. Gero, beste hainbat salbuespen lege dago. Frantziako espetxeetan egindako urteak aintzat ez hartzea ahalbidetzen duena batetik, edo kondenaren gehienezko denbora 40 urtera arte hedatzen duena bestetik.

**B.A.A.:** Horrez gainera, lehen barruti judizialeko auzitegiari zegokion gradua berrestea, eskualdeko auzitegiari. Baina 5/2003 legea aldatu zuten, eskumen hori Auzitegi Nazionalak izan zezan. Horrenbestez, presoek jarraipena egin ez duen urrutiko organo batek ematen du ebazpena.

### Sareren irudi eta lan ildo berriak 'Etxera' dio. Gaur egungo marko legalak zein bide edo zirrikitu ahalbidetzen ditu presoek etxeratzean eragiteko?

**B.A.A.:** Indarrean dagoen legediagaz, presoek kondena zati handi bat beteta izatea eskatzen zaie etxeratzeekin hasteko. Hor gradu progresioak sartzen dira jokoan. 110 bat presok hirugarren graduaren egon beharko luke-

**Salbuespen legeek ez dute sekula zentzurik izan, eta Euskal Herriaren bilakaera eta testuingurua ikusita, agerian geratu da hori**

te, baina gaur egun 33ri baino ez zaie egoera hori aitortzen. Gradu horregaz, presoak preso egoten jarraituko luke ikuspuntu legal batetik, baina kontrolerako neurri batzuk erabilia kalean egoteko aukera izango luke. Adibidez, pultsera telematikoa erabilia edo aldiro-aldiro auzitegira sinatzera joanda. Egoera horrek arnasbide bat eskainiko lioke presoari. Beste aukera batzuk baimenak dira. Eusko Jaurlari-

tzak egun biko baimenak eman ditzake bere kabuz. Bere eskumen propioa da. Gradu progresioaren eskumena ez da berea, Auzitegi Nazionalari dagokio, eta honek gradu aldaketak ukatzen baditu, bada, guk eskatzen duguna da Eusko Jaurlaritzak baimenak ematea. Hori ere beste aukera bat da.

**M.E.M.:** Hirugarren gradura pasatzeko, baimen horietatik igaro behar duzu alde aurretik. Beraz, baimen horiek hemengo langileen esku daude, presoak ezagutzen dituzten langileen eta arduradunen esku. Borondatea behar da etxerako bide horretan eragiteko.

**Bestalde, iheslariek eta deportatuek zein kokaleku dute lan ildo berri honetan?**

**B.A.A.:** Gaur egun bost deportatu eta 20 bat iheslari daude. Gatazkaren zati dira eta beharrezkoa da haien etxeratzea ere. Saren haien etxeratzea aurreikusteko irizpideak eta baliabideak ezarri ditugu. Aurreikuspen horiek erakundeetatik eta eragile sozial eta politikoekin aurreikusi gura ditugu.

**Sareren iritzi, zein da aurrera begirako bidea?**

**M.E.M.:** Argi eta garbi dago 35 urteko sakabanaketa politika mobilizazioei eskerrak heldu



Durangoko Sarek antolatuta, berbaldia egin zuten astelehenean, Hizkuntza Eskolako aretoan.

dela amaierara. Herri honetan eboluzio bat gertatu da gizarte mailan, perspektiba mailan. Argi duguna da etxeratze bideak ezin dituela beste 30 urte iraun.

Fase bat itxi eta beste bat zabaldu da. Horretarako, ezinbestekoa da indar metaketagaz eta mobilizazio sozialekin jarraitzea, presoak etxeratze bidean ipini daitezen

behingoz. Salbuespen legediek ez dute sekula zentzurik izan eta Euskal Herriak egindako ibilbidea eta testuinguru berria ikusita, hori agerian geratu da.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

# Gazteen artean banakako arreta psikologikoa sustatzeko psiko-bonuak eskainiko dituzte Durangon

2.222 bonu kaleratuko dituzte 14tik 35 urtera bitarteko gazteei psikologoarenera joaten laguntzeko helburuagaz



Udal ordezkariak eta psikologoek elkargoko kideak.

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

Durangoko Udalak, Bizkaiko Psikologia Elkargoaren laguntzagaz, osasun mentalean eragiteko lan-kidetza programa "aitzindaria" ipiniko du martxan. 2.222 bonu kaleratuko dituzte 14tik 35 urtera bitarteko gazteei psikologoarenera joaten laguntzeko. Gazteek 10 psiko-bonu eskuratzeko aukera izango dute urte osoan, bonu bakoitza bost euroan. Ima Garrastatu alkateak honako testuinguru honetan kokatu du egitasmoaren oinarria: "Pandemiaren eraginez, antsietateak, depresioak eta halako gaitz psikologikoen gora egin dute, gazteen artean batez ere. Ondorio kaltegarri hauei ahal den neurrian aurre egiten laguntzea da helburua", azaldu du. Hori dela eta,

udalak 100.000 euro ipiniko ditu egitasmorako.

Programa honetan parte hartuko duen psikologoetariko bat Maider Del Río da. Bere berbetan, "edozein bizi prozesutan 15etik 29 urtera arteko adin-tartea oso garrantzitsua da. Makina bat esperientzia eta aldaketa bizi dugu. Aldaketa eta esperientzia horiek hazkunderako aukerak edo hastapen traumatikoak izan daitezke. Ildo horretan, modu prebentiboan landu ezean ez dugu aldaketei aurre egiteko osasun mentalik izango. Batzuetan ez da zertan arazo larri bat egon. Zerbait egoerak eragin dezakete gure osasun mentalean; selektibitate probak, adibidez. Hiru saiotan irtenbide bat eman diezaikegu

ezonegon horri", azpimarratu du. Julián Ríos alkateordearen iritziz, "oso egitasmo interesgarria eta beharrezkoa da".

**15 psikologo**

Psiko-bonuak Durangoko Udala-ren webgunean edo Herritarren Arretarako Zerbitzuan eta Turismo Bulegoan dauden kutxazaintan eskuratu ahal izango dira. Durangon erroldatuta egon beharko da, eta aipaturiko adin tartean egon. Udaleko María Villar gizarte teknikariak zehaztu duenez, Bizkaiko elkargoko 15 psikologok parte hartuko dute programan: "Lehenengo kontsulta izan ondoren, psikologoek eurek ikusiko dute zenbat psiko-bonu beharko duen gazte bakoitzak". Azkenik, osasuna eskubide bat dela gogoratu du Del Río psikologoak: "Egin dezagun osasun mentala ere eskubide unibertsal eta demokratikoa, denontzako eskubidea. Izan ere, askotan ahalegin ekonomiko garrantzitsua da psikologoarengana joatea".

# Mugimendu feministak hitzordu bi zehaztu ditu 'Bizitzak Erdigunean' ipintzeko bidean

Eskualdeko militante feministak Gasteizera joango dira domekan, bertako bilera nazionalera. Apirilaren 29an Durangoko II. asanblada egingo dute Andragunean

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Mugimendu feministak zaintza erdigunean ipintzeko dinamika hasi zuen martxoaren 8an, eta Durangaldeko kideek hitzordu bi prestatu dituzte bide horri ekiteko. Domeka honetan, Gasteizera joango dira han egitekoa den Euskal Herriko bilera nazionalen parte hartzera. Herritarrak topaketan parte hartzera deitu dituzte, eta, horretarako, domekan, 8:30ean, Maspeko aparkalekuan (Iurreta) batuko dira, gero Gasteizera joateko. Bestalde, Durangoko mugimendu feministak bigarren hitzordu bat prestatu du. Apirilaren 29an, Durangoko II. asanblada egingo dute Andragunean. Topaketa 11:00etan izango da.



Durangoko Mugimendu Feministak martxoan egindako bilera.

# Dendetan eta tabernetan erabiltzeko 9.600 bonu kaleratu dituzte

Ekainaren 11ra arte erabili ahaliko dira. Kanpainak 144.000 euroko eragin ekonomikoa izatea gura dute

**DURANGO • E.H.**

Durangoko Udalak merkataritza eta gastronomia bonuen kanpaina berria hasi du. 9.600 bonu ipini dituzte zirkulazioan. Txartelak eskuratzen dituzten herritarrak 15 euroko erosketa egin ahaliko dute, 10 euro ordainduta. Bakoitzak 6

bonu eskuratu ahaliko ditu gehienek. Ekainaren 11ra arte erabili ahaliko dira, data horretan behin betiko iraungo dira eta. Txartelak [bonoa.durango.eus](http://bonoa.durango.eus) atarian, Turismo Bulegoan eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuratu daitezke.



Bonuak eskuratzeko ilarak Turismo Bulegoan, 2020an.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2023ko apirilaren 21a  
21. urtea - 932. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Ikasleen artelanak, gorputz ereduei buruz hausnartzeko

Fray Juan Zumarraga institutuko batxilergo artistikoko ikasleek 'Gorputzez' izeneko erakusketa prestatu dute. Lanak San Agustin Kulturgunean daude ikusgai

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Esperimentu modura hasi zuten dena, erakusketa bat egiteko ideia zehatzik barik, baina artelanei izena eta lekua ematen amaitu dute. Fray Juan Zumarraga institutuko Batxilergo artistikoko ikasleek *Gorputzez* izeneko erakusketa prestatu dute. San Agustin Kulturguneko sarreran ipini dituzte lanak ikusgai. "Ikasleen lanari ikusgaitasuna ematea da asmoa. Institutuan ate irekien jardunaldiak egiten ditugunean bai, hor egoten dira ikasleen lanak. Baina, kasu honetan, artelanak herriratu egin ditugu San Agustinen ipinita", azaldu du Amaia Alberdik, Artearen Oinarriak ikasgaiko ira-

kasleak. Bera da ikasleekin eta beste hainbat irakaslegaz batera erakusketa prestatzeaz arduratu den kideetarikoa bat. "Gorputzen gaia landu gura izan dugu, aniztasunetik, gorputz irudi estereotipatuetatik urrunduta, norberagandik hasita", adierazi du Alberdik. "Izan ere, nerabeen munduan, Instagramek eta gorputz idealek garrantzi handia dute. Horri zentsurarik egin barik, bestelako begirada batzuk proposatu dituzte", gaineratu du. 50 bat ikasleren lanak daude ikusgai. Erakusketa apirilaren 28ra arte egongo da zabalik. 17:00etatik 19:30era ikasleak eta irakasleak erakusketari buruzko azalpenak ematen egongo dira.



Lan artistikoak San Agustin Kulturguneko sarreran daude ikusgai.

## Trumoitte Kultur Elkartek agenda kulturala osatzeko bilera egingo du astelehenean

Garaiko kultur etxean batuko dira, 18:30ean

**GARAI • E.H.**

Urtean zehar antolatzen dituzten ekintzez gainera, Garaiko Trumoitte elkarteko kideek egitasmo berri gehiago batu gura dute urteko agenda kulturalera. Badituzte ideia batzuk buruan bueltaka, baina herritarrekin batera kontrastatu eta landu gura dituzte. Horrez gainera, zabal-zabalik dituzte ateak, herritarrek izan ditzaketen proposamenak jasotzeko. "Programazio batu bat egin gura dugu. Baditugu ideia batzuk buruan. Abentura parke batera irteera egitea, adibidez, edo sasoi bateko bertso afaria berreskuratzea, antzerkitxoren bat antolatzea, dokumental ema-

naldi bat... Ideia batzuk baino ez dira, baina herritarrekin kontrastatu eta denen proposamenak jaso gura ditugu", esan dute

**Badituzte ekintza batzuk buruan bueltaka, baina proposamenak entzun gura dituzte**

Trumoitteko kideek. Hori dela eta, astelehenean bilkura egingo dute Garaiko kultur etxean. 18:30etan izango da. Gazte, familia zein heldu, herritar guztiak gonbidatu dituzte bileran parte hartzera.

## Iurretako Oromiño auzoan antzinako eztegia ospatuko dute

Domekako ekitaldiak ehun lagunetik gora batuko ditu

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako Oromiño auzoan 1902. urtera egingo dute salto, egun batez bada ere: antzinako eztegia egingo dute, domekan. Ehun lagunetik gora batuko dituen jarraigoak 12:00etan irtengo du Oro-

miñotik, eta San Markorainoko bidea egingo du. Auzokoak ordu-bete lehenago batuko dira, idiek tiraturiko gurdia prestatzeko, eta azken ikutuak eman ondoren bideari ekingo diote, trikitalari eta albokariek lagunduta. Gaizka



2017an antzinako eztegia antzeztu zuten, Oromiño Jai Batzordeak antolatuta.

Arizmendiari eta Nerea Yarzabal ezkongaiak izango dira buru jarraigoan.

Bide erdian konbitea egin ondoren, San Markora heldu eta ezkontza antzeztuko dute. Oromiño baserri bateko 1902. urteko ezkontza-hitzarmen originalak irakurriko ditu notarioak, eta ezkongai bien amek aktak egiaztatuko dituzte. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira eta, arratsaldean, kanturako eta dantzarako aukera izango dute Eingo taldeagaz.

Bost urterik behin antolatzen dute ekintza eta era berezian bizi dute: "Elkar ikusteko eta egoteko aitzakia izaten dira auzoko jaiak, eta euskal eztegia tokatzen den oraindino gehiago. Eguna bera eta antolaketa prozesua ere oso politak izaten dira, auzokoak elkartzera eta gure artean partekatzea eramaten gaituzte eta", dio Oromiño Jai Batzordeko Iraide Iriondok. Azken euskal eztegia 2017an egin zuten. Baina COVID-19agaitik urtebete atzeratu dute.

# PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA  
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE  
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA  
AIRFLOW PERIODONTZIA  
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

**DURANGO**  
ANDRA MARI KALEA 4  
944 008 235 - 688 766 973

**GALDAKAO**  
LAPURDI KALEA 18  
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

## Urkuzu baserria Kultur Etxe lez birgaitzeko proiektua aurkeztu du Atxondoko Udalak

Udalak jakinarazi duenez, proiektuak 1,2 milioi euroko kostua du. Next Generation funtsak eskatu dituzte

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urkuzu baserria Kultur Etxe bihurtzeko proiektuari ekin diola jakinarazi du Atxondoko Udalak prentsa ohar bidez. "Eraikina udalaren jabetzakoa da eta kokapen egokia da bertan Kultur Etxea eraikitzeko, atxondarrek eta herriko elkarrekin behar dituzten

zerbitzu guztiekin", azaldu dute gobernu taldekoek.

Proiektuak 1,2 milioi euro bali du eta hori ordaintzeko Next Generation funtsak eskatuko dituzte. "Diru laguntza eskatu dugu. Atxondarren etorkizuna markatuko duen inbertsio garrantzitsua bere gain hartzeko", azaldu dute.



Urkuzu baserrian egin gura duten proiektua.

## Atxondoko igerilekuetako taberna lehiaketa publikora

Apirilaren 29ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko. Udaletxean aurkeztu beharko dira

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak lehiaketa publikora atera du igerilekuetako tabernaren kudeaketa. Udaletik jakinarazi dutenez, interesatuek apirilaren 29ra arteko epea izango dute euren proposamenak udaletxean aurkezteko.

Atxondoko Udaleko kideek prentsa oharrean azaldu dutenez, denboraldi bakoitzeko kanona 500 eurokoa izango da, BEZa barne. Eta kontratua bes-

te urtebetez luzatzeko aukera egongo da.

Bestalde, baldintzei dagokienez, igerilekuak zabalik dauden bitartean taberna ere zabalik egon beharko dela adierazi dute. Taberna ekainaren 24an zabalduko da eta irailaren 4ra arte egon beharko du zabalik, egun guztietan. Hau da, kontratuak irauten duen egun guztietan. Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

## Elorrioko Gaztetxeko kideek 'Mamuon Jaixa' ospatuko dute, ekainaren 17an

**ELORRIO** • AITZIBER BASAURI

Elorrioko Gaztetxeak 35. urteurrena ospatu zuen otsailean. Oraingoan, 'Mamuon Jaixa'-n parte hartzea deitu ditu elorriarrak. "Egun berezia" izan dadin gura dute, "denontzako egun berezia". Eta, horretarako, ekitaldiz beteriko egitaraua osatu dute; herri bazkaria, pilota eta pala partiduak, azoka, kontzertuak eta txaranga egongo dira, besteak beste. "Ez dugu gura egun hau gurea bakarrik izatea, denok gonbidatuta zaudete", azaldu dute Gaztetxeakoek.



Elorrioko Gaztetxearen 35. urteurreneko argazkia.

## Elorrioko gazte eta hurrek udako ekintzetan izena eman dezakete

Udalak eta hainbat eragilek antolatu dituzte ekimenak

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak eta herriko hainbat gizarte eragilek hainbat ekintza antolatu dute udako oporretarako 3tik 16 urtera arteko neska-mutilentzat. Batetik, udalak herri kanpamentuak antolatu ditu

3tik 12 urtera arteko haurrentzat. Familiek hiru txanda izango dituzte aukeran: uztail osokoa, 3tik 28ra, zein aste biko kanpalekuak: 3tik 14ra edo 17tik 28ra.

Bestalde, uztaillean, haurrentzako igeriketa ikastaro trinkoak

ere antolatu dituzte, 5etik 12 urtera artekoentzat. Eta herriko kirol elkarrekin eskutik, CD Elorrio-Campus inklusiboa eta Elorrioko Rugby Taldearen kanpamentua egongo dira.

Horrez gainera, Txintxirri Ikastolan ekainaren 26tik uztailaren 14ra Eman hegoak udaleku irekiak, Enjoy English eta Dantza udalekuak antolatu dituzte, eta Loudesko Ama ikastetxean English Summer Camp.

## EAJK "talde prestatua eta motibatua" aurkeztu du Abadiñok "aurrera" jarraitu dezan

Abadiñoko EAJ-PNVko zerrendaburua Mikel Garaizabal egungo alkatea da. Lau urte egin ditu alkatetzan



Abadiñoko EAJK taldea.

**ABADIÑO** • JONE GUENETXEA

Abadiñoko EAJK afiliatuek aukeratu dituzte maiatzeko udal hauteskundeetarako hautagaiak. Prentsa oharrean diotenez, "talde askotarikoa eta anitza da, eta esperientzia, ilusioa eta Abadiñogaz konpromiso errotua eta leiala uztartzen ditu". Gaineratu dute EAJK "talde prestatua eta motibatua" aurkeztu duela, "Abadiñok aurrera jarraitu dezan". Zerrendaburua Mikel Garaizabal egungo alkatea da. Zerrendako bigarrena Sara Cearsolo lan-aholkularia da, eta hirugarrena Iñaki Rekalde ostalaria.



**clínica dental hartz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA  
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA  
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

**hitz**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com



**EZ ERRAN INORI**  
Maddi Ane Txoperena  
(Elkar)



**NI EZ NAIZ MIKEL LABOA**  
Iturriaga/Cano/Larretxe  
(Elkar)



**BAR GLORIA**  
Nerea Ibarzabal  
(Susa)

#salduenak



# Gremioen gida

 **Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

  
**Ubide**  
iturgintza  
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

  
**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

 **Zurgintza**

  
**ATERPE AROTZAK**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

 **Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## Aerotermin bidezko berokuntza sistema ipini dute Mallabiko eskolako gimnasioan

Azpiegitura berriagaz energia kontsumoa eta CO2 emisioak murriztuko direla adierazi du udalak

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko Udalak aerotermin bidezko berokuntza eta hozte-sistema berria ipini du eskolako gimnasioan, berokuntza sistema "eraginkor eta iraunkor bat" emateko helburuagaz, udaleko iturriek adierazi dutenez. Aerotermin ingurunean airean

bero moduan biltegitzen den energia da, espazio bat berotzeko edo hozteko atera daitekeena. Sistema honeguz kontsumoa eta CO2 emisioak murriztuko direla adierazi dute udaletik: "Gainera, energia iturri agortezina erabiltzen du, airearen ingurumen energiaren %77 ere doan atez-

ratzen duen teknologia garbia delako". Eraginkortasun handiko etiketa energetikoa duen instalazioa ipintzeko, 23.070 euroko inbertsioa egin dute. Zati bat Eusko Jaurlaritzako diru laguntza bidez finantzatu dute. Hain zuzen ere, Udalgintza 2022 programatik 13.842 euro jaso dituzte.



Berokuntza sistema "eraginkorra eta iraunkorra" bilatu dute sistema berriagaz.



Izurtzako hautagaiak.

## Izurtzako EH Bilduk zerrenda aurkeztu du maiatzeko hauteskunderi begira

Oihane Irastorza izango da zerrendaburua. "Lanean jarraitzeko gogoz gatoz beste behin ere", adierazi du

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako EH Bilduk maiatzeko udal hauteskundeetarako hautagaitza aurkeztu du. Lorea Muñoz gaur egungo alkatea ez da aurkeztuko. Bere ordez, Oihane Irastorza izango da zerrendaburua. "Azken urteak ez dira bat ere errazak izan, baina zailtasunek ez gaituzte beldurtzen; eta bai ni eta baita

gure taldea ere lanean jarraitzeko gogoz gatoz beste behin ere. Ziur gaude gure ilusioagaz, esperientziagaz eta herritarren lankidetzagaz maite dugun Izurtza egingo dugula", adierazi du Irastorzak. Miguel Angel Martinezek, Iker Ballarinek, Nerea Zarrabeitiak eta Francisco Javier Reteguik osatzen dute zerrenda.

## Otxandion, Mirugainek asteburupasa antolatu du Pirinioetara, uztailean

Uztailaren 1etik 2ra joango dira; igoera bi daude aukeran: Arriel mendia (2.824 metro) eta Arrieleko iboiak (2.300)

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Mirugain mendi taldeak Pirinioetarako asteburupasa antolatu du uztailaren 1erako eta 2rako. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5a da. Interesdunek [mirugainelkarte@gmail.com](mailto:mirugainelkarte@gmail.com) helbidera idatzi edo 722 571 873 telefonoko whatsappera idatzita.

Uztailaren 1ean goizean goiz irten, bidean gosaldia eta 10:00 inguruan Sallent de Gallegora helduko dira. Mendi irteeran

aukera bi daude: gogorragoa den Arriel mendia (2.824 metro) igozteza, eta eramangarriagoa den Arrieleko iboietara (2.300 metro) ibilaldia. Hurrengo egunean Pacino mendira joango dira (1.965 metro).

Bidaia 100 euro da bazkideentzat eta 130 euro bazkide ez direnentzat. Prezio horretan, autobusa, hoteleko afaria, lo egitea eta domekako gosaria eta bazkaria sartzen dira.

## Gaur bertso saioa izango da Mañarian, Uztabarritzen bertso zirkuituaren barruan

Arri-Toki jatetxean Eneko Abasolo, Ander Sarriugarte, Unai Iturriaga, Irune Basagoiti eta Onintza Enbeita arituko dira

**MAÑARIA • J.D.**

Durungaldeko bertso eskolak antolaturiko Durungaldea Uztabarritzen Bertso Zirkuituak Mañarian izango du azken-aurreko geralekua. Gaur, 19:00etan, bost bertsolari arituko dira bertsoan Arri-Toki jatetxean: Eneko Abasolo 'Abarkas', Ander Sarriugarte, Unai Iturriaga, Irune Basagoiti eta Onintza Enbeita. Itxaro Juaristik egingo ditu gai jartzaile lanak.

Uztabarritzen zirkuituko azken bertso saioa Otxandion izango da, apirilaren 29an, datorren asteko barikuan.



Joan zen astean Garain egindako bertso saioa irudia.

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik /hileko**

**IGOGAILUEN  
MANTENTZE-LANEN  
ESKAITZA  
ZORROTZENA**  
+2.000 bezerok gugan  
dute konfiantza

946 523 935  
bertako.eus





**Athletic Club**




**Vs**



**Real Betis**

Maiatzak 4 | 22:00etan

# Athleticen eta Real Betisen arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Athleticen eta Sevillaren  
arteko partidarako sarreren  
irabazlea:  
**Javier Iraeta Narbaiza**

Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: Apirilak 26, goizeko 10:00ak arte.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



**anboto  
kide**



# Anbotokideen txokoa

## MAIATZEKO ZOZKETAK



**Bizkaiko Bertsolari txapelketarako sailkapen faserako** bi sarrera bikoitz. Maiatzak 4, Plateruena Kultur Aterpean.



**Gauargi tabernan** bi pertsonentzako gosaria. lurreta.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

**BBK Karpin:** Inmaculada Ardanza eta Miren Manzidor  
**Delirium Tremens eta La Escavadoraren kontzertua:**  
Asier Bilbao Mazaga

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## 1937an Santamañezarren hildakoak gogoratuko dituzte domekan, Zaldibarren

XXXI. Castet Egunean oroimen ekitaldia egingo dute

**ZALDIBAR • J.G.**

Castet Elkarteak oroimen ekitaldia antolatu du 1937ko apirilaren 25ean Zaldibarko Santamañezar mendian hildakoak gogoratzeko. "Santamañezarren jausitako gudari eta milizianoak, eta Euskal Herriaren eta askatasunaren alde borrokan jausitako guztiak gogora ekarri eta omenduko ditugu", azaldu dute Castet elkarteak ki-deek.

Apirilaren 23an, domekan, Zaldibarko udaletxeko plazan hitzordua ipini dute 10:00etan Santamañezarrera taldean igotzeko. Behin Santamañezar tontorrean, ikurrina ipini eta argazkia aterako dute, 11:15ean. Herrira jaitsi eta udaletxeko plazan lore eskaintza egingo dute, 12:30ean. Ondoren, Castet elkartera kalejiran joan eta luntxa egingo dute bertan.



Iazko Castet Eguneko argazkia.

## Kanposantuko berrikuntza lanak amaitu dituzte Zaldibarren

**ZALDIBAR • J.G.**

Zaldibarko Udalak hobekuntza eta mantentze-lanak egin ditu kaperan eta kanposantuko nitxoetan. Hainbat jarduketan egin dute bertan. Proiektu horretarako, 20.174,1 euroko inbertsioa egin du.

Zaldibarko Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, kaperako estalkiaren teilak zementuzko mortero bidez elkartu dituzte, eta txarto dauden eremuak pikatu eta zementuzko mortero bidez

**Proiektu horretarako, 20.174,1 euroko inbertsioa egin du Zaldibarko Udalak**

elkartu dituzte. Horrela, espazio hori berri eta konpondu du udalak. "Irisgarriago bihurtu dugu eta zeuden materialak berri ditugu", adierazi dute.



## Berrizko El Pastor del Gorbea eta Atxondoko Etxoste jatetxeak saritu ditu Repsol Gidak

Durangaldeko jatetxe biek lehenengoz jaso dute Repsol Gidaren Solete saria

**BERRIZ/ATXONDO • A.B.**

Durangaldeko jatetxe bik errekonozimendua jaso dute oraintsu. Berrizko El Pastor del Gorbea jatetxeak eta Atxondoko Etxoste jatetxeak Repsol Gidak emandako Solete saria jaso dute aurtentzen, lehenengoz. Jatetxe bietako arduradunak oso eskertuta eta pozik agertu dira jasoriko errekonozimenduarengaitik. Repsol Gidak 2021ean sortu zuen Solete saria.

Otsailean, Atxondoko Erro jatetxeak Repsol Gida entzuteak emandako lehenengo Eguzkia lortu zuen, eta Julen Bazek zuzenduriko Dimako Garena jatetxeak bigarrena.



Pastor del Gorbeako eta Etxosteko arduradunak.

# Alegazioak aurkeztu dituzte Boroa eta Larrea lotzeko errepide berriaren kontra


Ikastetxeak eta auzotarrak kexu dira, bideak "zarata eta eragozpenak" sor ditzakeelako

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Larrea Herri Ikastetxeak, Larrea Eskolako Guraso Elkarteak, An-

dramari ikastolak eta Larreako auzotar batzuek alegazioak aurkeztu dizkiote Zornotzako Udalaren

Hiri Antolamedurako Plan Orokor berriari. Testu berriaren kontra daude, planak Boroa eta Larrea



Alegazioak aurkeztu dituzten kideek honako infografia hau zabaldu dute, eragina azaltzeko asmoz.

lotzeko errepide eta biribilgune berri bana eraikitzea aurreikusten duelako, eta horrek auzoan eragin dezakeelako. "Errepide berriak eta bere lotura-biribilguneak ibilgailuen mugimendua areagotzea besterik ez dute eragiten, zarata eta eragozpenekin, lehendik zeuden etxebizitzetatik eta ikastetxeetatik oso gertu", adierazi dute hedabideetara bidalitako oharrean. Ikastetxeen eta auzotarren esanetan, Zornotzako Udalak errepide berri bat egiteko asmoa du Larreako tirolina dagoen lekutik, Larra Bideko 15. zenbakiko etxebizitzatik abiatu eta Larrea Eskolako patioaren aldamenetik aurrera eginda.

Trafikoaren arazoaz gainera, ikastetxeak, eskolako guraso elkarteak eta bizilagun batzuek beste hainbat puntutan agertu dute desadostasuna. Batetik, proiektuak Larrea Herri Ikastetxearen patioari eragiten diolako. "Proposatutako errepideak patioaren zati bat kentzen dio Larrea Herri Ikastetxeari, eta, trukean, nekez probetxatu

daitekeen lur aldapatsu bat eman gura digute ibaiaren ondoan", diote. Bestetik, biribilguneak tirolina parkeko zuhaitz handiak eta apartakalekuak "kendu" egingo dituela eta Andramari ikastolako ikasleentzat, bizilagunentzat eta ibiltarientzat "oztopoa" ekarriko duela gaineratu dute. "Erabiltzaileek udalariaren gainerakoagaz lotzeko alternatiba bat behar dute, ez industrialde baterako irteera bat", iritzi diote eragileek. Alde horretatik, "auzokoan eta erabiltzaileen iritzia" kontuan hartzeko eskatu diote udalari.

## Hiru hilabete zain

Alegazioak iazko abenduan aurkeztu zituzten. Orain, ikastetxeak, guraso elkarteak eta auzotarrak udalak erantzun bat noiz emango itxaroten daude. "Ez dugu baztertzeko ahotsa altzatzea, laster aukeratu behar dugun gobernu taldeak Zornotzako herritar askoren iritzia kontuan har dezan", ohartarazi dute.

# Aisialdi eskaintza zabala Zornotzako udalekuetan

Udalekuetan, Musika udalekuetan zein Gauero Udan programetan izena emateko epea zabalik dago



2017ko udalekuetako irudi bat.

**ZORNOTZA • E.H. / A.M.**

Udari begira, adin, gustu eta kolore guztietako udaleku eskaintza prestatu dute Zornotzan. Udalak dagoeneko zabaldu du udalekuetan zein Gauero Udan programan izena emateko epea. Lehenengoak 4tik 11 urtera bitarteko umeentzat zuzenduta daude. Gauero Udan, 11tik 15 urtera bitartekoentzat. Udalekuei dagokienez, lau aste daude aukeran: ekainaren 26tik 30era, uztailearen 3tik 7ra, uztailearen 10etik 14ra eta uztailearen 17tik 21era. Orduetegiari dagokienez ere, aukera bi egongo dira. A txanda 9:00-13:00, eta B txanda 9:00-15:00 (jantoki zerbitzuagaz). Gauero Udan programan, osteran,

txanda bakarra egongo da. Ekainaren 26tik uztailearen 7ra bitartekoa, hamar eguneko, 09:00-14:00 orduetegiagaz.

Bestalde, Zornotzako Musika Bandak Musika Udalekuak antolatu ditu. 6tik 14 urtera bitarteko umeentzat egingo dituzte, uztailearen 10etik 14ra. Hiru alor jorratuko dituzte: ahotsa, perkusioa eta inprobisazioa, eta, antolatzaileen berbetan, ez da beharrezkoa izango umeek musika formakuntzarik edukitzea. Hiru programotan izena emateko epea apirilaren 28an amaituko da. Zornotzako Udalaren web orrian eta [www.musikaudalekuak.eus](http://www.musikaudalekuak.eus) atarian daude inskripzioarako bideak.

# ZORNOTZA LHII EHUrekin elkarlanean

Leioako Arte Ederretako Fakultateak eta ZORNOTZA LHIIk sinatu berri duten elkarlanerako hitzarmenaren ondorioz, unibertsitateko irakasle talde bat eta doktoretza egiten ari den ikasle bat zentrorra etorri ziren eta eskultura proiektua aurkeztu zuten.


Ikasleak egindako eskulturaren maketa aztertu ondoren, lanari ekin zioten eta eskultura metalean egin da, soldadura eta muntaia teknikak erabiliz.

Bilboko Udalaren Kultura ataletik, Kultura barrutik ekintzen baitan EXPODISTRITO 2023 erakusketan Juanje Agirreren eskultura ikusgai egongo da.

Bide batez, gure harremanak sendotuz, ikastetxeko ikasle bat Unibertsitatera joan da praktikak egitera, bertan erabiltzen duten soldadura sistemak ezagutzeko eta praktikan jartzeko. Ikasleak bere ezagutzak eta gaitasunak partekatuko ditu bertako irakasle eta ikasleekin.

Beste alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko Geologia Sailak simulagailu sismiko bat egiteko laguntza eskatu dio ZORNOTZA LHIIri.

Proiektu honen helburua lurrikarak simulatzeko mahai bat diseinatzea eta muntatzea da. Simulagailu sismikoa (edo mahai bibratzailea) saiakuntza esperimentalen aparatua bat da, egitura baten erresistentzia sismikoa probatzeko. Proba-aparatu hori gai da elementuei edo egitura osoen ereduak bibrazioak ezartzeko, lurrikaren kasuan lurzorua mugimendua erreproduzitzen.



Urritze auzunea, z/g · Tff: 94 673 02 51  
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)  
e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Domekan, apirilak 23, XVIII. Umeen Dantzari Eguna egingo dute Traña-Matienan. Ehunka ume dantzan arituko dira herriko kaleetan. Egun horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute Iluntze dantza taldeko kideek.

12:00etan emango diote hasiera egunari, auzoko kaleetatik zehar egingo duten kalejiragaz eta dantza saioekin. Ostean, bazkaltzeko tartetxo bat hartuko dute eta arratsaldean, 17:00etan, alardea egingo dute Traña plazan. Alardean, dantzari guztiak batu eta dantza hauek egingodituzte: arku dantza, zinta dantza, kontrapas, txulalai, zapatain dantza, San Petrike, zortzinangoa, ezpata joko txikia, banangoa eta txo-txongiloa.

## Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute apirilaren 23an Traña-Matienan

Iluntze Dantza Taldeak Traña-Matienako XVIII. Umeen Dantzari Eguna antolatu du



Aurreko edizio bateko argazkia.

### Politikan

Garazi Errasti  
Silloniz  
EH-Bildu



#### 4+4

Lau urte luzeren ondoren, badatoz hauteskundeak. Denerik bizi izan dugu: eraikin publiko adierazgarrienak itxi beharra, COVID-19 birusaren pandemia, bero eta haize boladak... Baina dena ez da txarra izan, eta bidean izandako oztopo guztiak gainditu ditugu.

2020ko pandemian, berrak-tibazio plana jarri genuen mar-txan. Pandemiak kalte gehien eragindako kolektiboen behar-rianak gailendu genituen, eta egoera ahalik eta hoberen paira zezaten lan egin genuen. Gastro-bonoak sortu, konfinamenduan boluntario katea egin, Durango-ko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu enpresa txikiei laguntzak eman, kultura babestu eta kaleak kulturaz jantzi...

PERI Ferrocarril proiektua geratu, eta beste alternatiba bat egiteko galdeketa egin genuen 2021eko martxoaren 14an. Egun horretan herriak hitz egin zuen; 18 pisuko luxuzko 5 bloke eraikitze-ari ezetz esan zion, eta Durangorentzako alternatiba askoz hobe-ia izango dena adostu genuen.

Uribarri kaleko Amilibia eraikina 2022. urte amaieran erais-tea lortu dugu. Hainbeste urtean eraisketa diru publikoz egin beharra saldu ziguten; eta, guk, EH Bilduko zinegotziok, behar zen bezala botatzea erdietsi dugu (eraikin ilegalaren jabe zirenen diru pribatuz).

2023. urtea indartsu dator. Durangoko auzoetako obrak (Antso Estegiz kalea, Madalena-ko ermita, Juan Itziarko lokala, Aramotz Berritu, Urki Hegolde bidea, trenbide zaharreko traza-dura...), gazteentzako etxebizitza eta emantzipazio laguntzak, Mañaria eta Ibaizabal ibaiko isurketak ekiditea, eta beste hainbat ekimen, beste lau urtez, EH Bilduk Durango hobe bat eraikitzeko.

### Durungaldea asteen

#### Apirilaren 22an San Jurki jaiak ospatuko dituzte Mallabiko Berano Txiki auzoan

**MALLABIA** | Apirilaren 22an, zapatua, San Jurki jaiak ospatuko dituzte Mallabiko Berano Txiki auzoan. Jai batzordeak hainbat ekimen antolatu du auzoko jaiak ospatzeko. 17:00etan meza egongo da eta, ondoren, kafea bertaratzen direnentzat. 18:30ean, euskal kantak egongo dira Gau Argi taldeagaz. Eta, ondoren, luntxa.

#### Reala-Erroma partiduko istiluekin lotuta pertsona bat atxilotu dute Durangon

**DURANGO** | Eguaztenean, Ertzaintzak bost lagun atxilotu zituen, eurretari bat Durangon, martxoaren 16an Donostian jokaturiko Reala-Erroma futbol partiduen aurretik gertaturiko istiluetan ustez parte hartu izanagaitik. Bost atxilotuak 27 urtetik 41 urtera bitartekoak dira eta desordena publikoak eta kalteak leporatu dizkiete. Operazioa zabalik dago oraindino.

#### Elorriko Udalak 15.000 euro ipiniko ditu negozio berrien irekiera sustatzeko

**ELORRIO** | Komertzioek herrian duten garrantziaren jabe izanda, udalak, beste urte batez, 15.000 euroko laguntza ekonomikoa onartu du merkataritzako lokalak berrakibatuzko. Diru laguntza 2023ko abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango da. Ekimen guztiak izango dute laguntza ekonomikoa eskatzeko aukera, baina herriguneko lokaletan gauzatutako proiektuei emango zaie lehentasuna.



#### Durangoko elkarteek 'Plazara!' irtengo dute, jarduerak herritarren artean zabaltzeko

**DURANGO** | Durangoko elkarteek kalean egingo dituzte jarduerak, herritarren aurrean eta herritarrekin lankidetzan. *Plazara!* izeneko egitasmoa antolatu dute eta ekitaldiz bete dituzte barikutik domekara bitarteko orduak. Ate irekien jardunaldi modukoak izango dira eurretari asko, egiten duten lana herritarrei erakusteko. Ekitaldiak herriko hainbat puntutan egingo dituzte. Bakoitza leku batean. Kirola, musika, astronomia eta elkartasuna batu dituzte programan. Egitarau zehatza kontsulatu gura duenak [anboto.org](http://anboto.org) atarian dauka informazio guztia.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



# Smurfit Kappa

Central forestal



# Smurfit Kappa

Nervión



+55

urte

EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAIINTZEN






# Traña - Matienako jaiak 2023



## San Prudentzio Jaiak 2023

Apirilaren 27tik maiatzaren 7ra arte  
**Gora Abadiñoko Jaiak!**



[www.abadiño.org](http://www.abadiño.org)



## Traña-Matienako jaiak 2023

Apirilak 27, eguena

**18:00 Kuadrilla guztien bilera** Trañaiko zubian Donien Atxa ekartzeko.

**20:00 Donien Atxa jasotzea.** Giroa alaitzen, **Ustekabe fanfarrea, Iluntze taldearen dantza saioa**, eta **urteko herritar ospetsua** saritzeko ekitaldia.

Urtarrilak 28, barikua

**16:45 Haurrentzako entzierroa** Traña plazan.

**20:00 Txupinazoa** txosnagunean. Ondoren, **parrillada** Traña plazan.

**21:00 DJ Dema** Traña Plazan: **DJ Wimis vs DJ Alus.**

**23:00 Kontzertuak** Traña Plazan: **Banda Baffana, Peio eta Itsua.**

Apirilak 29, zapatua

**10:00 Kickboxing opena** Traña-Matienako kiroldegian. Fexmack taldeak antolatuta.

**14:30 Herri bazkaria** Traña plazan. Ondoren, **kuadrillen arteko jolasak** Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatuta.

**19:00 Mozorro kalejira Bizuka Percusión fanfarreak** alaituta, Trañabarren kalea

**22:15 Ikuskizun piro-musikala.** Tren geltokiaren ondoan. Eurria edo haizea bada, hurrengo zapatara atzeratuko da.

**23:00 Erromeria** Traña plazan: **Altxa Porru.**

Apirilak 30, domeka

**12:30 Batukandra.**

**14:30 Txupinazoa eta herri bazkaria** Traña plazan.

Ondoren, Gazte Eguneke jokoak Traña plazan. Eurria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**18:30 Kalejira Eskapaie taldeagaz.** Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**23:00 Kontzertua** Traña plazan: **Esne Beltza, Gora Etorri eta DJ Kuku.**

Maiatzak 1, astelehena

**10:00 Txanbolin taldeko Txistularien kalejira.**

Goizean, **Geu Be taldeak Eusko Labelako txahal bat erreko du** Traña plazan. Eurria bada, eskolako aterpean.

**10:00 Artisautza eta Sortzaile azoka** frontoiko aparkalekuan. Abadiñoako emakume artisau-sortzaileak.

**12:00 Herri kirolak** Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00 Mus txapelketa** Taberna Zarran.

**17:00 San Prudentzio pilota txapelketako finalak.** Atxtxiki Pilota Klubak antolatuta.

**17:30 Turistreatzen (Trapu Zaharra) familia ikuskizuna** Traña plazan. Eurria bada, eskolako aterpean.

**18:30 Showcooking eta Txiki Txef saioa Zigor Iturrietagaz eta sorospen tailerra Amaia Munitxarekin.** Traña plazan. Txosna batzordeak antolatuta. Janari bilketa solidarioa egingo da, Atxondo Harrera Herria elkartearentzat.

Maiatzak 5, barikua

**16:45 Txiki merienda** merkatu plazan.

**17:15 Disko-dantza** merkatu plazan.

**22:00 Bertso saioa** Errota Kultur Etxean. Bertsolariak:

**Unai Iturriaga, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Eneko Abasolo 'Abarkas'.** Gai jartzailea: **Igor Galarza.** Gonbiteak apirilaren 25etik aurrera, Errotan (gehienez 2 sarrera pertsonako).

**23:00 Iratzar erromeria** Traña plazan.

Maiatzak 6, zapatua

**11:30 Izen-ematea paella txapelketarako,** merkatu plazan.

**12.30 Iluntze dantza taldearen kalejira eta alardea** Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00 Ugasio txapelketa** merkatu plazan.

**17:30 Izen-ematea tortilla txapelketarako,** merkatu plazan.

**23:00 Kontzertua** Traña plazan: **Hoax attack, Sweet rage Etxepe.**

**23:00 Jaialdia** Trañabarren etorbidean: **Orquesta Caiman**

Maiatzak 7, domeka

**10:00 Txanbolin taldeko Txistularien kalejira.**

**11:00-13:30 Umeentzako jolasak** Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**12:45 Kontzertua elizan, Jaizale txistulari elkarteagaz**

**13:30 Perretxiko pintxoaren dastatzea** Pinoko plazan. Geredixa mikologi elkarteak antolatuta. Serenade taldea.

**14:00 Jubilatuen bazkaria.** Udalak antolatuta.

**16:00-19:30 Umeentzako jolasak** Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**20:00 Donien Atxa botatzea.**

**MOTOS TABIRA**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA  
ITZULI DA KEEWAY  
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
motostabira@outlook.es  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

**EROSKI bidaiak**  
Trañabarren 11, behea  
Matiena  
Tel.: 944 019 767- 688 739 254  
v2679@viajeseroski.es

**Karmelo Agirre**  
Barne Diseinua  
kolegiatu zenbakia B183 C.O.D.D.B.

Proiektuak,  
**erreformak,**  
altzariak,  
**etxebizitzak,**  
komertzioak,  
**ofizinak**

610 501 086

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

**federópticos**  
Apraiz

**audiocentro**

ONDO PASA  
JAJETAN!

Trañabarren 13, behea (Abadiño) - [www.federopticasapraiz.com/es](http://www.federopticasapraiz.com/es)

**Talleres  
Serafín**  
S.Coop

Elorriagazar, 11  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 807

**ELECTRICIDAD  
EGUZKI, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115  
48220 MATIENA - ABADIÑO

[eguzki@elect-eguzki.es](mailto:eguzki@elect-eguzki.es)  
689 709 602 Jabi  
946 815 201 f: 946 818 658

**TONO**  
**ALBAÑILERÍA**

Igeltserotza orokorra  
Etxebizitzaren zaharberritzeak  
Merkataritza-lokalak  
Baserriak

**GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**

686 420 383  
946 202 565

# Marrazki bizidunak izango dira Traña-Matienako jaietako Mozorro Eguneko protagonistak, apirilaren 29an

Donien Atxa jasota eta urteko lagun ospetsuari saria emanda, ekitaldiz beteriko egitarauari hasiera emango diote datorren egunean

## ABADIÑO • J.G.

Denboraldiko jaien hasiera Traña-Matienako San Prudentzio jaiak markatzen dutela gauza jakina da. Horregaitik, eskualde osoan gogo bereziagaz hartzen den ospakizuna izaten da. Apirilaren 27an, ohiturari eutsiz, Donien Atxa jasoko dute Traña-Matienan. Aurretik, kuadrillak Trañako zubian elkatuko dira Donien Atxa eramateko. 20:00etan izango da ekitaldia. Aurten ere, urteko pertsonaia ospetsuari saria emango diote.

San Prudentzio Egunean jaurtiko dute txosnaguneko txupinazoa. Aurten, Abadiñon Euskaraz taldeak izango du ohore hori. Herrian sortu berri den taldeak euskara bultzatzea du helburu.

Mozorro Eguna jaien lehenengo zapatuan izango da. Herri bazkaria egingo dute, Traña plazan. Parte hartzaileak mozorrotuta joango dira. Aurtengo gaia marrazki bizidunak izango dira. Kuadrillak hasita daude gaiaren bueltako jantziak prestatzen arratsaldeko kalejiran prest egoteko.

## Gazte Egun jendetsua

Gazte Eguna sanprudentzioetako ekitaldirik jendetsuenetarikoa izaten da. Urtero 200 bat gazte batzen dira. Jaietako lehenengo do-



lazio Mozorro Eguneko argazkia. Klima aldaketa izan zen gaia.

meka izanda, eguerdiko jokoetan parte hartzea aukera ona izaten da biharamunari aurre egiteko. Zapatu gauean, jaietako kontzertu nagusia izango da: Esne Beltza taldea. Xabi Solanoren taldeagaz batera eskualdeko Gora Etorri eta DJ Kuku igoko dira oholtzara. As-

telehena jai eguna izanda, domeka gaua luzatzeko aukera izango da. Astelehenean (maiatzak 1), Geu Be taldeak Eusko Labeleko txahala erreko du Traña plazan. Horrez gainera, Abadiñoko emakume artisau-sortzaileek antolatuta, azoka izango da frontoiko aparkalekuan.

Arratsaldean, ekitaldi berezia izango da: Zigor Iturrietak *showcooking* eta Txiki Txef saioa gidatuko du. Ekitaldian bertan, janari bilketa solidarioa egingo dute Atxondo Harrera Herria elkartearentzat. Jaietako bigarren asteburuari dagokionez, maiatzaren 5erako

bertso saioa antolatuko dute Errotan. Unai Iturriaga, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Eneko Abasolo 'Abarkas' arituko dira bertsotan. Igor Galarza izango dute gai jartzaile. Bigarren zapatutako, paella txapelketa antolatu dute.

Administración de loterías  
**N.º 1 HIRU**  
Ondo pasa jaietan!

San Prudentzio, 2 behea MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 200 457 - loteriahiru@hotmail.com

**R. SAMUR COMPRESORES**

Lehorgailuak - hozkailuak  
- iragazkiak - instalazioak  
- konpresoreak - zerrak

TRANA industrialdea,  
pab. D-13, ABADIÑO  
Tel.: 946 818 967

www.reparaciones-samur.com  
samur@reparaciones-samur.com

**ISOTU**

BATU ZAITEZ  
HERRI  
MUGIMENDUETARA!

Laubideta 6,  
Abadiño

**VANCOUVER**  
Bar - Cafeteria

Berezitasuna  
askotariko pintxoetan.  
Rabak asteburuetan  
eta jaiegunetan.

Musika zuzenean

Trañabarren Etorbidea, 9 - Matiena  
Tel.: 946 817 039

electricidad **ELGOIN S.A.**

**MUNTAIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
SARE INFORMATIKOAK**

Zubibitarte, 6  
48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)  
Tel.: 946 817 961 • elgoin@elgoin.com

**GISASOLA PENTSUAK  
EKOGARDEN**

LORAK • PENTSUAK • BARATZA  
TRAÑA • MATIENA • ABADIÑO • BIZKAIA  
TEL: 94.681.66.87  
C/ ZUBIBITARTE 14  
E-mail: gisasola.p@gmail.com

**ERLIA CONTENEDORES**  
www.contenedoreserlia.com

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO  
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Pedro Álvarez Sánchezek 34 urte egin ditu Traña-Matienako Oxford tabernako barra atzean. Maiatzaren 31n, erretiroa hartu eta itxi egingo du taberna. Bezeroek bere falta igarriko duten horietariko tabernaria da Pedro, tabernara doana beti esker oneko berba batez hartzten duen pertsona.

**Bizitza osoa ostalaritzan aritu eta gero, heldu zaizu erretiroa hartzeko momentua.**

Bai. 48 urte egin ditut ostalaritzan lanean, eta horietatik 34 Oxford tabernan. Lehenengo, Durangoko Dallas tabernan 10 urte egin nituen, eta gero beste lau urte Cambridgen. Horren ondoren, Oxford taberna hartu nuen. Dagoeneko heldu zait ostalaritzari agur esateko unea.

**Zer dela eta erabaki zenuen Traña-Matienan taberna hartzea?**

Momentu hartan Cambridge tabernan nengoen lanean, eta bertako bazkideetarikoa bat, Javi, Oxfordeko jabea zen. Oxford taberna norbaitek hartzea gura zuela esan zidan eta neuri eskaini zidan. Probatzea erabaki nuen eta begira, 34 urte egin ditut bertan.

**34 urte pasatu dira taberna hartu zenuenetik. Denbora honetan mundua asko aldatu da, baina zuen tabernak berdin-berdin jarraitzen du. Zein izan da sekretua aldaketa garai hauetan bizirik irauteko?**

Egotea, egoten jarraitzea, eustea eta pazientzia izatea. Horixe da gakoa, ez dago beste sekreturik. Azken batean, taberna batean jendea den modukoa izaten utzi

# “Oxford nire bizitza da. Gauza on asko eman dit eta oso gustura aritu izan naiz beti hemen”

Traña-Matienako Oxford tabernak atek itxiko ditu maiatzaren 31n. Pedro Álvarezek 34 urtez kudeatu du taberna

behar zaio, eta apurka-apurka, baikoitzari dagokion tratua emanez, norberaren eremura ekartzea lortzen da.

Egia esan, 34 urte hauetan momentu gogorrak ere izan ditugu, eta batzuetan ez da erraza izan aurrera egitea. Baina une oro argi izan dut eutsi egin behar niola.

**Oxfordeko kafeak eta kubatak bereziak dira.**

Mimoz egiten ditugu eta bezeroek eskertu egiten dute. Kubatak egiterakoan, esaterako, ez gara sekula ere lukurrak izan. Behar den beste izotz botatzen dugu eta edaria bera ere gustu handiz zerbitzatzen dugu. Jendea eskertzen duena ondo ematen badiozu, pozik izango duzu.

**Zuenean adin eta mota guztietako jendea batzen da.**

Bai eta elkar ondo ulertu dute beti, horixe da garrantzitsua. Normalean jende nagusiak ordu bat du eta gazteak beranduago datoz. Baina, bai, euren artean elkarbizitza lortu dugu eta niretzat oso garrantzitsua da hori.

Esaterako, beti argi izan dut aseturuetan Matienan tabernaren bat zabalik egon behar zela gaez. Gazteei eta ez hain gazteei aukerak eman behar zaizkie; bestela, joan egiten dira herritik eta gaerako dena erdi hilda geratzen da.



**Pedro Álvarez Sánchez**

Oxford tabernako kudeatzailea

DURANGO | 1960

**Goizez, arratsalde edo gaez Oxforde etorri gero bertan aurkitzen zaitugu. Zuk ez duzu atsedenik hartzen?**

Egunero hiru errelebotara lan egiten dut, goizez, arratsalde eta gaez. Ordu asko. Nire atseden eguna eguaztena izaten da eta orduan ahalegintzen naiz atseden hartzen, baina, egia esan, ez dut denbora askorik horretarako. Orduak falta ditut atsederako.

**Zer eman eta zer kendu dizu tabernak?**

Oxford taberna nire bizitza da. Gauza on asko eman dit eta oso gustura aritu izan naiz beti hemen. Kendu, familiagaz egoteko momentuak kendu dizkit. Horren falta igarri dut, baina hori eramaten ere ikasten da.

**Imajinatzen dut orain plan zerrenda luze bat izango duzula egiteko.**

Nire emazteak nik baino gehiago.

"Orain enteratuko zara", esaten dit. Egia esan, nire denbora librea umeek lez disfrutatzen dut; beraz, gogotsu nago orain arte egin ez ditudan gauzak egiteko.

**Amaitzeko, bezeroei mezuren bat bidali gura diezu?**

Bai. Taberna honen arima direla eta izan direla. Eurak dira taberna egiten dutenak eta oso eskertuta gaude. Eurei eskerrak momentu on asko eramango ditut.



Instalazio elektriko industrialak, automatismoak, erregulazioa eta kontrola

Trañapadura Industriagunea,  
C pabilioia - 5.lokala (Matiena)  
48220 ABADIÑO (Bizkaia)  
Tel.: 946 812 433 - Fax.: 946 810 996

info@electricidadanboto.com · www.electricidadanboto.com

MATIENA  
ESTANKOA

Trañaetxoste, 2  
MATIENA - ABADIÑO  
Tel.: 946 814 033

Cafetería  
Oxford



ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)




SCHMIDT  
Ondo pasa jaietan!

Murueta Auzoa z/g  
Eroski Merkatal Zentroa  
48220 Abadiño  
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK





## Benito Lertxundi

MUSIKA DURANGO :: Apirilak 22

### Benito Lertxundik kontzertua emango du, zapatuan, Durangon

Benito Lertxundik Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekua beteko du, zapatuan, kontzerturako sarrera guztiak agortu egin dira eta. Orioko musikariaren jarraitzaileek aukera paregabea izango dute haren musikagaz gozatzeko.

Ospakizun gauean da Benito Lertxundiren azken lana, 2018an kaleraturikoa. Hala ere, COVID-19arengaitik eten egin zuen bira. Bada, bertan baturiko kantak eta azken urte bietan konposatu dituenak entzuteko aukera egongo da 20:00etan hasiko den

kontzertuan, musikariaren kantarik ezagunenak ahaztu barik.

Lertxundik kontzertu "go-goangarria" eman zuen 2014an Ezkurdiko frontoi zaharrean, eta orain, bederatzi urte geroago, toki berera bueltatuko da. "Garai bateko emanaldi bereziak berreskuratzeko asmoa dugu, eta horietako lehenengoa izango da hau", azaldu dute Durangoko udal arduradunek. Musikari oriotarragaz batera Durangoko Orfeoak ere ikuskituzun labur bat emango du.

### Apirilaren 21ean

#### DURANGO berbaldia

'Umorea disezio mahaian: Nork, nondik, nola?' (Hizlaria: Ane Labaka idazle eta bertsolaria), 19:00etan, Arte eta Historia Museoa. Hitzez eta Ahotsez kultur egitarauaren barruan.

#### DURANGO kontzertua

Delirium Tremens + La Escavadora, 22:00etan, Plateruena kultur aterpean.

#### ELORRIO antzerkia

'Confesiones de una vedette furibunda' (Las Pueyo producciones), 20:00etan, Arriola antzokian.

#### MAÑARIA bertsoak

Durungaldea Uztabarrizten III. Bertso Zirkuitua: Eneko Abasolo 'Abarkas', Irune Basagoiti, Unai Iturriaga eta Onintza Enbeita bertsolariak, 19:00etan, Arri-Toki tabernan. Gai jartzailea: Itxaro Juaristi.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Hobe ixilik!' (Txalo Produksioak), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

### Apirilaren 22an

#### ABADIÑO antzerkia

'Kelsonia eta itsasoa' (Gorakada), 17:00etan, Errota kultur etxean.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Laika' (Xirriquiteula), 17:30etan, Zornotza Aretoa.

### Apirilaren 23an

#### DURANGO antzerkia

'Ganbara' (Markeliñe), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### DURANGO dantzaldia

Nagusientzako dantzaldia, 18:30etan, Elkartegian.

#### ELORRIO magia

'Imagine. Erdi Aroko ipuin magikoa' magia ikuskizuna (Oliver&Liuba), 17:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA euskal ezkontza

Antzinako Eztegua, 12:00etan, Oromiño auzotik San Markora, trikitilariak alaituta. Ondoren, bazkaria eta Eingo taldeagaz erromeria.

### Apirilaren 24an

#### IURRETA sanmarkoak

Donien Atxa jasotzea, iluntzean. Parte hartzen dutenentzat bakailao errea. Ondoren, igel txapelketa.

### Apirilaren 25ean

#### IURRETA sanmarkoak

San Marko Eguna, Oromiñon.

Meza, 12:00etan.

Bazkaria, eguerdian.

Briska txapelketa, 17:00etan.

### Apirilaren 27an

#### BERRIZ kontzertua

Ro taldea, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean. 'Baiagoan' lana aurkeztuko dute.

### Apirilaren 28an

#### DURANGO musika

Jamm Session, 21:00etan, Plateruena kultur aterpean. Bartolome Ertzilla Musika Eskolaren 40. urteurren.

#### IURRETA ipuinak

'A, E, I, O, U, ni eta zu!', ipuin kontaketa Amaia Egidazu ipuin kontalariaren eskutik, Herri Bibliotekan. Saio bi emango ditu: 17:00etan (3tik-5 urtera arteko umeentzat) eta 17:45etan (sei urtetik gorakoentzat).

#### IURRETA ipuinak

'El lugar en el que vivo' Mon Peraza narratzailearen eskutik (Fuerteventura), 19:00etan, Herri Bibliotekan.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Señora de rojo sobre fondo gris' (José Sacristán

aktorea), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

### Apirilaren 25era bitartean

#### ZORNOTZA erakusketa

'Gizonak Berdintasunerantz eta Maskulinitate Berriak. Jendarte berri baten aldeko irudi berriak' (Piper Txuriak elkarte) argazki erakusketa, Zelaieta Zentroan. Apirilaren 25ean, 'Maskulinitate berriak' hausnarketa saioa herriko gizonen zuzenduta, 18:00etatik 20:00etara.

### Apirilaren 30era bitartean

#### ZORNOTZA erakusketa

'Inoiz haragi zati bat bezala sentitu zara?' eskultura instalazioa (María Alarcón eta Alexia Rández), Zelaieta Zentroan.

### Maiatzaren 21era bitartean

#### DURANGO erakusketa

'Berpizkundera' erakusketa, Jose Manuel Rozasen heriotzaren 40. urteurrenean. Arte eta Historia Museoa.

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEAN

#### • Air

barikua 21: 19:30  
domeka 23: 19:30

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

#### • 20.000 especies de abejas

barikua 21: 18:30 / 21:00  
zapateria 22: 19:00 / 21:30  
domeka 23: 19:15  
astelehena 24: 17:45 / 20:15  
martitena 25: 17:45 / 20:15  
eguztana 26: 19:00

#### • ¡Vaya vacaciones!

barikua 21: 18:30 / 21:00  
zapateria 22: 17:00 / 19:30 / 21:30  
domeka 23: 18:00 / 20:00  
astelehena 24: 18:00 / 20:15  
martitena 25: 18:00 / 20:15  
eguztana 26: 19:00

#### • Posesión infernal: el despertar

barikua 21: 18:30 / 21:00  
zapateria 22: 17:00 / 19:30 / 21:30  
domeka 23: 18:00 / 20:00  
astelehena 24: 18:00 / 20:15  
martitena 25: 18:00 / 20:15

#### • Super Mario Bros. La Película

zapateria 22: 16:45  
domeka 23: 16:45

#### • La Bohème (opera)

eguztana 26: 19:00

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

#### • El Caftán Azul

zapateria 22: 20:00  
domeka 23: 20:00  
astelehena 24: 20:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

#### • Loli tormenta

domeka 23: 20:00  
astelehena 24: 20:15

#### • Lau ahizpa magikoak

domeka 23: 17:00

#### • A los libros y las mujeres canto

martitena 25: 20:15

# “Ikertu ostean, mugak hain argi edukita, oso zaila egiten zitzaidan umorea sortzea”

'Hitzez eta ahotsez'-en bederatzigarren edizioak umorea du ardatz; gaur berbaldia egongo da Durangoko Museoa



**Ane Labaka Mayoz**  
Bertsolaria, idazlea,  
sortzailea  
LASARTE-ORIA | 1992

TXINTXARRI

**LITERATURA • ARITZ MALDONADO**  
Hitzez eta ahotsez egitasmoak antolatuta, Ane Labaka bertsolari eta sortzaileak berbaldia emango du gaur: **Umorea disezio-mahaian: nork, nondik, nola?**

Hitzez eta ahotsez egitasmoko lagunak egin duten galdera bera egingo dizut. Badago umorerik euskal literaturan?

Askotan esaten da, bere historiagatik edo gatazkak eduki duen pisuagatik, beste modu bateko testuak idaztea izan dela joera Euskal Herrian, baina uste dut umorezko testuak ere badaudela. Azken urteko lanetan ere behin baino gehiagotan agertzen da umorea. Ez dakit umorea ala ironia den, pixka bat zaila baita hori mugatzea, baina badaude umorezko testuak, eta *a priori* pixka bat serioagoak diren lanetan ere agertzen dira umore printzak; iaz Euskadi Literatur Saria irabazi zuen Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* ez nuke esango umorezko liburua denik, baina, irakurri ahala, hainbat momentutan irribarrea ateratzen dio irakurleari. Beraz, esango nuke baietz, bada-goela umorea euskal literaturan.

rezko testuak, eta *a priori* pixka bat serioagoak diren lanetan ere agertzen dira umore printzak; iaz Euskadi Literatur Saria irabazi zuen Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* ez nuke esango umorezko liburua denik, baina, irakurri ahala, hainbat momentutan irribarrea ateratzen dio irakurleari. Beraz, esango nuke baietz, bada-goela umorea euskal literaturan.

**Sarri umoreaz galdetzen da umore bakarra balego legez.**

Beste gauza guztiakin gertatzen den bezala, umore hegemonikoa oso maskulinoa izan da, goitik beherakoa, zapaltzailea, pixkat bazterrean geratu diren horiei edo hain desiragarria ez den horri barre egiten diena, eta hori ere pixka bat hausten ari dela esango nuke.

**Berbaldian, bertsolaritzari loturiko umoreaz ala orokorrean arituko zara?**

Nire lana horixe izan da hasieratik. Orokorrean, umorea ulertzeko gako batzuek arituko naiz, mekanismo eta funtzionamendu batzuek, eta horiek azaltzeko, lurreratzeko, oso baliagarriak zaizkit bertsolaritzako adibideak, horiek egiten zaizkidalako hurbilekoenak; egunerokoan sortzen zaizkidanak ere erabiltzen ditut, baina, egia esan, normalean bertsolaritzari loturikoak erabiltzen ditut; gainera, normalean, hitzaldietarako deitzen didaten lekuetan ere bertsolaritzari loturiko erreferentziak izan ohi dituzte. Esango nuke horrek laguntzen duela, hain abstraktuan hitz egin gabe, gaiek lur hartzen dutelako horrela.

**Arlo akademikoan ikerketagai, umorea tresna ere izaten duzu sorkuntzarako edo bertsotarako. Nondik datorkizu umoreagazko hartu-eman hori?**

Nik uste, zauri batetik. Beti kontatzen dut hamabi bat urterekin hasi nintzela bertsotan; lehenengo plaza edo eskolartekoetan, beti azpimarratzen zidaten [gerora jakin dut neska bertsokide gehiagori ere egiten zitelena berdina] zeinen ona nintzen alde seriotik kantatzen, edota diskurtsoak eraikitzen. Ez ziguten esaten, ostera, umorean hain onak ginenik, justu bertsogintzan hain

preziatua den alorra izanda, gainera. Hor joan nintzen ulertzeko hori ez zela niri zegokidan espazio bat, ez nuelako baloratzen umore mota hori; ez nuen konektatzen, ezta disfrutatzen ere. Baina denborarekin konturatu naiz kontua ez zela nik ez nekiela umorea egiten, edo ez nuela gustuko, baizik eta plazetan zegoen umore hegemoniko horrek ez ninduela betetzen, ez hartzaile gisa, ezta sortzaile gisa ere, ez ninduelako motibatzen sortzera.

**2021ean *Algara mutilatuak* publikatu zenuen, eta ostean hainbat berbaldi eman duzu umorea gai hartuta. Igarri duzu aldaketarik jendeak umorea ulertzeko duen moduan?**

Bai, nik uste geroz eta gehiago hitz egiten dela umorearen mugetan, batez ere feminismoetik. Feminismoa indartzen joan ahala, alde aurretik hutsaltzat hartzen ziren hainbat gai erdigunera ekarri dira. Zenbat aldiz entzun da umoreaz hitz egitera, edo "ez da hainbesteko", edo "txiste bat baino ez zen". Hori aztertzen hasita, umorea erdigunera ekarri da, baina kritikarako tresna ere badela ikusi da, eta presente dagoen gai bat dela esango nuke. Adibidez, *Akelarre* saioagaz gertatu dena ulertzeko balio digu horrek. Umoreari duen garrantzia ematen ari zaio. **Zuri aldatu zaizu umorea bizitzeko modua?**

Momentu batean obsesio moduko bat izan nuen umorearekin. Hainbeste ikertuta, eta mugak hain argi edukita, hainbeste kritikatu, oso zaila egiten zitzaidan umorea sortzea, denbora guztian gauza horiek ikusten nituelako. Denborarekin, baina, askatzen joan naiz, eta egun, bertsokideen edo sortzaileen aldetik estimatzen dudana gauza bat da, eta konturatu naiz zein konplexua den umoretik sortzea. Askotan esaten da bertsotan publikoa hunkitzea errazagoa izan daitekeela publikoari barrea eragitea baino. Lanketa hori egin dut eta umorea baloratzen ikasi dudala uste dut.

**DIBA**  
KOOPERATIBA  
Durangaldeko Baserritarren Elkarte  
Muruetan, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

**Ipuin kontalariak**

**APIRILAK 28**  
· 17:00etan - 3-5 urtekoak  
· 18:00 - 6 urtetik gorakoak

**AMAIA EGIDAZU**  
"A, e, i, o, u, ni eta zu!"  
*\*Sarrera gonbidapenarekin*

**APIRILAK 28 · 19:00etan (HELDUENTZAKO)**  
**MON PERAZA**  
(Fuerteventura)  
"El lugar en el que vivo"  
*\*Sarrera gonbidapenarekin*

94 681 27 26 | biblioteca@iurreta.eus  
WhatsApp edo Telegramaz 688 86 37 36

**Iurreta**  
Elezateko Udala  
HERRI BIBLIOTEKA



Mikel Kazalis, Andoni Basterretxea, J.J Yurrita eta Haritz Harreguy.

## Rock doinuek Plateruena kultur aterpea hartuko dute osterera ere

Delirium Tremens eta La Excavadora taldeek kontzertua emango dute Durangon

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

Delirium Tremens talde gipuzkoarra Plateruenera bueltatuko da gaur, eta Durangoko Azokako Ahotseneakoa baino kontzertu luzeagoa joko du. 2022an itzulera iragarri zuenetik, taldeak *Hordago* diskoa kaleratu du, eta dozenaka kontzertu eman ditu. Andoni Basterretxea eta Juan Jose Yurrita *Txufuz* taldearen sortzaileekin batera, Mikel Kazalis (baxua) eta Haritz Harreguy igoko dira taula gainera orain ere. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

Delirium Tremens 1985ean sortu zuten Basterretxeak (ahotsa eta gitarra), *Txufuk* (bateria) eta Javier Bilbatua *Billyk* (baxua); 1987an Zarrapo taldeagaz batera *Hemen denak berdinak dira* (Oihuka) diskoa kaleratu zuen, eta 1989an *Ikusi eta ikasi* lan ezaguna. Lanak arrakasta handia izan zuen, *Laino ilunak*, *Boga boga*, eta *Kaixo* abestiengaitik batez ere.

**La Excavadora, biran**

Talde gazteagoa da La Excavadora, bertako kideak aspalditik dabil-

tzan arren musika munduan. 2019 amaieran sortu zuten taldea Pelak (SCB, Marky Ramone's Blitzkrieg...), Txikik (Gatillazo, La Polla Records, Rockaina...), Butonek (Gatillazo, Al Karajo...) eta Mikelek (Childrain, Vicepresidentes...). Bigarren diskoa kaleratu dute oraintsu, *Todo es para destruir*, eta bira betean daude hau aurkezteko; besteak beste, Logroñon (Espainia), Zaragozan (Espainia) eta Arrasaten joko dituzte kontzertuak udaberrian. Metal, punk eta rock doinuek uztartu dituzte bigarren lan honetan.

## Jaime Ocañaren vedetteek Arriola bisitatuko dute

'Confesiones de una vedette furibunda' emanaldia egingo dute Arriola antzokian, gaur, 21:00etan

**ANTZERKIA • A. M.**

Jaime Ocaña aktoreak La Veroren istorioa kontatuko du gaur, Arriola antzokian. Artista aragoiarrek umorez beteriko biografia aurkeztuko du Erorrion. Fikziozko pertsonaia izan arren, La Vero 70eko eta 90eko hamarkadetan zehar Aragoi oso ezaguna bilakatu zen. La Palmira vedettean oinarritzen da, baina ez du bere istorioa bakarrik kontatuko *Confesiones de una Vedette Furibunda* lanean. Ocañaren berbetan, garai harta-

ko Aragoiz jardungo da, orduko protagonistak gogoratuko ditu, umoreaz gainera xamurtasuna eta nostalgia gordetzen dituen kontakizunean.

Diziplina ugari jorratzen duen artista da Jaime Ocaña, eta, kasu honetan ere, antzezteaz gainera, zuzeneko musikaz ere arduratuko da Aragoiko artista. Ikusleek tonadillez eta pasodobleaz gozatu ahalko dute; Ocaña berak idatzi du obrako testua eta berak zuzentzen du. Catalina Pueyok lagundu dio.



Jaime Ocaña.

## Gai librean

**Bla bla**

Ondo ezagutzen ditut (ez)ezagunen kotoxeak: usainak, protokoloak eta hizkuntzen nahasketa arraro hori. Eta istorioak. Ez-leku izateko; mugimendu, itxaronaldi, sentipen eta umore gehiegi bizi izan ditut jada leku horietan.

Asteburu pasa hirira doazen lagun bi, urtero hiriz aldatzen duen polizia nazionala, biloba jasotzera doan amama, azken 10 urteetan urruneko pertsona batez maiteminduta dagoena, mugikorrari begira gidatzen duena, jatekoa eskaintzen dizuna, hitzik egiten ez duena. "Tabakoagatik familia galdu dut", "dantzari profesionala nintzen", "ez dakit nola esan lagunari nahiago dudala lan egin eta dirua irabazi bere urtebetetzera joatea baino", "ezin zenbatu zenbat lekutan egin dudana lan", "herri berekoak gara eta gaur arte ez dugu inoiz elkar ikusi", "zertara jolastu-



Eider Chavez Gallastegui  
Irakaslea

ko gara?", "behin, vodka botila oso bat edatera behartu ninduen, eta botaka egitean, botaka jaso eta hori beratu edatera behartu ninduen, bigarrenez" "kotxean ematen dut egun erdia", "badakit txakurrak lapurtzea ez dagoela ondo, baina...", "osasunagatik konpartitzen dut bidaia, osasun ekonomiko eta mentalagatik".

Eta galderak, "noiz arte egongo zara hemen? Zer ikasi duzu? Zertan egiten duzu lan? Gustuko duzu hemengo jendea? Zaila egiten zaizu hara-hona ibiltzea? Zer uste duzu kontatu berri dizudanaz? Ulertzen nauzu? Zuk zer egingo zenuke? Eman ahal dizut gomendio bat?"

Intimitatea. Orduak ematen ditut ez soilik bidaian; orduak eman egiten dizkiot bidaikideari, eman eta jaso egiten dira hizketaldiak eta mikrobioak autoan. Bizipenak konpartitzen dira, bidaia arinago egiteko, entzungo

zaituenaren sentsazioa izan duzulako, erabakitzeko astirik uzten ez dizun bapatekotasunagatik, edo auskalo zergatik. Kontua da bost ate horien barruan, bizitzak eta horrek guztiak dakarrenak kanporatzen direla, konfessio txokoetan antzera, bertatik irtengo ez diren konfiantzaz. Eta, ohartu gabe, istorio horiek norberaren parte izatera ailegatzen dira, ez dakizu noiz eta zelan, baina goiz batean bidaia hartako elkarrizketa bat datorkizu burura, eta pentsatzen hasten zara, nola egongo ote den pertsona hura, zer egingo ote zuen azkenean, konponduko ote zuen buruhauste hura. Ohartu gabe istorioak nahastu egin zaizkizu. Barruan eta mugimenduan daude.

Urrunetik ezin dira gertuko istorioak kontatu eta horregatik agurtzen naiz, momentuz. Nahiz eta badakidan, barruko istorioek nonahi dutela zentzua, nonahi nahasten direla.



**Itsasne Larruskain Antxia**  
Elorrio futbol taldeko aurrelaria  
ABADIÑO | 1992

## “Saria talde osoaren lorpena da; denek gogor lan egiten dute nik golak sartu ahal izateko”

Itsasne Larruskain Euskal Ligako pitxitxiak Cantera Deportivak banatzen duen Urrezko Baloia irabazi berri du

**FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO

**28 partidutan 22 gol daramatza eta ligako pitxitxia izan daiteke, bigarren bere ibilbidean. Orain asteburu bi, Alaves B-ren kontrako partidua- ren atarian, Elorrio futbol taldeko aurrelariak merezitako omenaldia jaso zuen.**

**Omenaldia sorpresa izan zen?**

Bai, ez nuen espero. Sekretuan gorde zuten momentua heldu arte, eta ezustekoa hartu nuen. Ni partidu normal bat balitz lez joan nintzen Eleizaldera. Apur bat urduri nengoen, baina Alaves lideraren kontra jokatzen genuelako zen. Gainera, klubetik aurreratu zidaten Urrezko Baloien harira zerbait egin gura zutela, baina aurrerago izango zela, Alavesen kontrako partidua oso inportantea zelako. Bada, aldageletan geundela, zelairatu aurretik, Gontzal Aranek [entrenatzailea] apur batean geratzeko esan zidan. Gainerakoak zelaira joan ziren. Gontzal legaz partiduari buruz berba egin nuen. Jakina, bakarrik zelairatu nendin egin zuen. Irten nuen zelaira eta... sorpresa! Pasilloa egin zidaten. Biak Bat harrobiko gazteak ere han zeuden. Lehengusuak eta ahizpak dantza egin zidaten eta ilusio handia egin zidan. Gainera, harmailtan jende mordoa

zegoen. Egun oso berezia izan zen niretzat eta oso eskertuta nago.

**22 gol daramatzazu eta Euskal Ligako pitxitxia zara une honetan. Zure ibilbideko denboraldirik onena da?**

Ez dakit onena den, baina onenatarikoa bai. 30 urtegez, ez nuen espero gainera. Baina meritua ez da nirea bakarrik. Saria talde osoaren lorpena da. Denek gogor lan egiten dute nik golak sartu ahal izateko.

**Urte batzuetan jokatzen jarraitzeko adina duzu, baina afizionatu mailan profesionaletan baino gatzagoa izaten da ibilbidea asko luzatzea. Zure ibilbidea azken txanpan dagoela uste duzu?**

Azken txanpan nagoela uste dut, bai. Niri futbolak ikaragarri eman dit: lagunak, bizitako esperientziak... Baina, beste alde batetik, konpromiso handia eskatzen du, asteburuak lotzen dizkizu... Eta, tira, gazteei ere tokia utzi behar zaie gora igotzeko!

**Elorrio ezin hobeto dabil aurten. Euskal Ligan hirugarren tokian zaudete. Aurtengo errendimendua sorpresa izan da?**

Beti daukazu ondo ibiltzeko esperantza, baina denboraldiaurrea zelakoa izan zen ikusita, ez genuen espero. Azkenean, herri txiki bateko taldea gara, gure lanak ditugu eta oportunitate bueltatu ginenerako aste bi baino ez ziren falta liga

**Nire ibilbideko azken txanpan nagoela uste dut. Futbolak ikaragarri eman dit, baina beste aldetik konpromiso asko eskatzen du, asteburuak lotzen dizkizu...**

hasteko. Ligako partiduetan amaitu genuen prestaketa. Ondorioz, ez genuen oso hasiera ona izan. Baina oso talde ona daukagu eta gorantz egin dugu. Blokeari eusteak asko esan gura du eta jokalariek berriek asko eman diote taldeari. Baina taldearen sekreturik handiena gure arteko giro ona dela esango nuke. Giro on horrek beste guztia dakar.



Alaves B-ren kontrako partidua atarian egindako omenaldiko irudia.

**Erasoko jokoaz gainera, defentsako lana ere azpimarratzekoa da. Elorrio golik gutxien jaso duen taldea da: 20 gol 28 partidutan. Atea hutsean mantentzeari funtsezkoa deritzozu?**

Talde osoak lan egiten du defentsan. Atea ondo zainduta dagoela ikusita, gorantz joatera ausartzen gara eta aurrera eginez gero golak heltzen dira. Azken batean, dena lotuta dago. Jokatzeko duenak jokatzen duela, dena ematen duela da beste gako bat.

**Harrobiko Biak Bat taldean neska asko dabil mailarik maila. Zein neurritan da garrantzitsua klub batentzat harrobi sendoa izatea?**

Durungaldean Biak Bat-en moduko proiektu bat egotea altxor bat da, pozik egoteko modukoa. Mantendu eta indartu behar den zerbait da. Eurak dira etorkizuna eta hortik elikatzen joan behar dugu.

**Sei jardunaldi falta dira liga amaitzeko: 18 puntu jokoan. Alaves B liderra 11 puntura daukazu eta Bizkerre B bigarren sailkatua 7 puntura. Zein da helburua?**

18 puntuak irabaztea da helburua! Lehenengo itzulian izan genituen horrelako boladak, eta, beraz, zergaitik ez dugu orain beste bat izango? Liderra zuzenean igoko da mailaz, eta bigarrenak aukerak izan ditzake. Gatx dago, baina posible den bitartean borrokan jarraituko dugu. Lorpen indibidualak ere hor daude. Pitxitxi izatearena eta golik gutxien hartu dituenaren Zamora saria.

**Bide horretako lehenengo oztopoa Anaitasuna taldea da, zapatuan, etxetik kanpora. Aurten, aurreko denboraldian baino pattalago dabilta azkoitiarrak. Irabazi beharreko partidua da? Dena ematera joango gara, baina ez da partidu erraza izango. Belar naturaleko zelaia da, handia. Eurek ondo hartua diote neurria zelaiari eta horrek gauzak zailtzen ditu. Sailkapenari begiratuta bakarrik ezin zaitezke fidatu. Talde ona dira.**

## Zornotza STk Urrezko Ligarako kanporaketa jokatu du bihar

Zornotzak galdu egin zuen joaneko partidua, baina puntu bigaitik baino ez (65-63) eta kanporaketa zabalik dago



Larrea zalez betetzeko deia egin dute klubetik. ZORNOTZA SASKIBALOI TALDEA

### SASKIBALOA • J.D.

Teknei Zornotzak denboraldi bikaina osatu du beste behin ere Zilarrezko Ligan, eta Urrezko Ligarako igoera fasea jokatzeko dabil. Final-zortzirenetako lehenengo kanporaketa Cartagenaren aurkako da. Joan zen asteburuko joaneko partiduan galdu egin zuen, baina puntu bigaitik baino ez, 65-63. Emaiza ona da, atsendaldira 17 puntu azpitik joan zirela kontuan hartuta. Itzulerako partidua zapatu honetan jokatu dute, 18:30ean, Larrean. Kantxara

sartzeko atek 17:00etan zabalduko dituzte eta klubetik zaleen laguntza eskatu dute. Pentsatzen da marea berdeak ez duela

**Itzulerako partidua zapatu honetan da, 18:30ean; 17:00etan zabalduko dituzte atek**

hutsik egingo eta beste askotan lez harmailak beteko dituela taldea animatzeko.

## Tabirakok garaipena behar du etxean, esperantzari eusteko

Tabirakok gatz du EBAn jarraitzea, eta bihar, ligako azken partiduan, garaipena behar du dituen aukera urriei eusteko

### SASKIBALOA • J.D.

Norbere etorkizuna beste egi-ten dutenaren menpe egotea ez da egoerarik aproposena, baina Tabirako Baqué gizonen talde nagusia ataka horretan dago liga amaitzeko jardunaldi baten faltan. Lehenengo eta behin, zapatuan, 19:00etan, Solares taldearen kontra Landako Kiroldegian jokatu duen partidua irabazi behar du, nahitaez. Garaipenak baino ez du balio. Ondoren, Ardoi eta Pielagos taldeek euren norgehiagokak galtzea behar du. Kasu horretan,

Tabirako Baquek postu bat igoko luke eta hamaikagarren kokatuko litzateke. Orduan, igoera faseetan gertatzen denaren zain geratu beharko luke. Mailaz igotzen diren taldeen arabera, Durangoko klubak mailari eusteko aukera izango luke.

Beraz, mirari txiki bat behar du Espainia mailako ligan jarraitzeko, baina hobe da hori batere ez baino. Horregaitik, klubetik zaleei egin diete zapatuan Landako kiroldegira bertaratu eta taldea animatzeko.



Tabirako Baqueko Asier Arizmendiarrera jokalaria, ligako partidu batean. LUIS ITURRIOZ

## Bugalloren oroimenezko txirrindularitza proba domekan, Durangon

### TXIRRINDULARITZA • J.D.

Kadete mailako txirrindularirik onenak Durangon batuko dira domekan, Aitor Bugalloren oroimenezko 8. lasterketan. Bizkaiko Koparako puntuagarrria izango da. Proba 16:00etan hasiko da, Ezkurdin. 55 kilometroko ibilbidean, Miotarako joan-etorria birritan egingo dute txirrindulariek. Ondoren, Garaira igo eta Goiuriatik jaitsiko dira, 17:30 inguruan Durangon helmugaratu aurretik. Parte

**55 kilometroko bidean, birritan egingo dute Miotarako joan-etorria Garaira igo aurretik**

hartuko duten Durangaldeko taldeen artean Café Dromedario Flotamet taldea egongo da.

Bizkaiko Kopa Zornotzan hasi zen, apirileko lehenengo asteburuan. Lasterketa hura Danena kirol elkarteko Eñaut Urkaregik irabazi zuen, Jon Cardonaren aurretik. Durangokoa Kopako hirugarren lasterketa izango da. Durangaldean beste proba bat ere egongo da; Abadiñon, hain zuzen ere, datorren maiatzaren 7an.

## Jokaldia

### Denboraldia jokoan

Bai, horrela da. Orain arte egindako lanaren ostean, eskualdeko saskibaloit taldeek aurrera egiteko azterketa garrantzitsuak izango dituzte asteburu honetan. Momentu honetan, denboraldia pil-pilean dago eta une erabakigarrian gaude.

Hasteko, Teknei Zornotza Zilarrezko Leb mailako taldea Urrezko Leb mailara igotzeko play offetako final-zortzirenak jokatzeko ari da. Joaneko partiduan, bi puntugatik galdu zuen saskibaloiko maila guztietan aritu den eta kirol ibilbide itzela duen entrenatzaile Gustavo Aranzanak zuzendutako Odilo FC. Cartagena CB taldearen aurka. Emaiza horrek guztiz zabalik utzi ditu hurrengo fasera sailkatzeko atek. Baina, noski, ez da batere erraza izango, eta gutxiago



Unai Zamalloa Zubiaurre  
Saskibaloia

**Teknei Zornotzarentzat ezinbesteko izango da defentsa gogorra, aurkarien barruko joko indartsua zailduz**

**Tabirako Baqueko neskek LF-2rako sailkapenerako lau finalerako txartela jokatu dute La Sallen**

puntu gutxitara bideratzen bada. Defentsa gogorra ezinbestekoa da, batez ere aurkarien barruko joko indartsua zailtzeko eta erasoko joko dinamikoa bideratzeko. Larrea topera egongo da eta zaleek ez dute hutsik egingo. Aurrera eta zorteik onena!

Tabirako Baqueko neskek La Salleren aurka jokatu dute larunbat honetan

LF-2rako sailkapenerako jokatu den lauko finalerako txartela. Taldea burutzen ari den denboraldiaren bukaera bikaina izan daiteke. Aurretik esan dugun moduan, talde osoaren lanaren emaitza da aurten lortzen dabilzana. Larunbatean, taldea animatzera joateko autobusa ere antolatu dute: 18:45ean Landakon, Botafumeiro aurrean. Aurrera, neskek, eta zortetik onena eurentzako ere!

Azkenik, Tabirakoko mutilak. Hauek ere, azken jardunaldi guztietan bezala, beste final bat jokatzeko dute EBA mailan mantentzeko. Aukerarik dagoen bitartean borrokatu egin behar da. Aurtengo azken partidua, gainera. Larunbatean Landako kiroldegian zaleen laguntza behar dute. Ikusten den moduan, denek ere partidu garrantzitsuak dituzte aurretik. Aurrera!



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**IURRETA**  
3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela-jantokia. Terraza. Garajea eta 14m<sup>2</sup>-ko ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.

**265.000€ C.E.E= E**



**ANBOTO**  
3 logela, komuna, sukale handia eta egongela handia balkoiarekin. Argitsua. Etxebizitza altua.

**190.000€ C.E.E: E**



**MARTXOAREN 8KO**  
ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia.

**318.000 € C.E.E= E**



**ZALDIBAR**  
80 m<sup>2</sup>. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea.

**175.000 € C.E.E=F**



**AUKERA**  
Apartamentua. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.

**142.500 € C.E.E: F**



**ABADIÑO**  
2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea.

**190.000 € C.E.E= D**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

**DURANGO:** Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berrizatzeko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 104.54 m<sup>2</sup>  
4 logela  
**LARIZ DORREA:** Egongela, sukaldea, jangela, 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea) Leku onean kokatua (Santa Ana) Hobekuntzak behar ditu. 2 APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA.

**175.500 € C.E.E: E**



**DURANGO** 57,59 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TABIRA KALEA:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen (ekialde-mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeetatik eta erdigunetik gertu. Herriko sarrera eta irteeratik gertu. Egoera onean. Ur instalazioa eta instalazio elektrikoak berrizatuak.

**184.000 € C.E.E: G**



**DURANGO** 69 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**LANDAKO:** 1.999. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du ( ekialde-mendebaldea) Argitsua. Herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta ganbara.

**278.000 € C.E.E: E**



**DURANGO** 92 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**MARTXOAREN 8KO:** 2.008. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du ( ekialde-mendebalde- hegoaldea) Argitsua. Herriko sarreratik gertu, zonalde berdeak. Ezin hobea. Garaje itxia eta handia.

**312.000 € C.E.E: Bidean**



**ABADIÑO** 33,66 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**SAN TROKAZ:** + 122 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Egongela - sukalde jantzia, logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Argitsua. Zonalde berdeak eta aparkatzeko erraztasuna. Egoera onean.

**169.000 € C.E.E: Bidean**



**MATIENA**  
**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,05 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzen.

**254.900 €-tik aurrera**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

**ANTSO EZTEGIZ KALEA:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € / ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

## //ABADIÑO

**MUNTSARATZ AUZOA:** Baserria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 350.000 E.E.Z=D**

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 100.000 € / ORAIN 95.000€ E.E.Z=G**

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitzeneko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

**PADURE:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitzeneko lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

### OTXANDIO

**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**


## //GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //BERRIAK

### ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.



### Botikak

<b>BARIKUA, 21</b> · 09:00-09:00 ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA <b>ZAPATUA, 22</b> · 09:00-09:00 BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-13:30 ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA 09:00-14:00 IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	<b>DOMEKA, 23</b> · 09:00-09:00 DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>ASTELEHENA, 24</b> · 09:00-09:00 SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>MARTITZENA, 25</b> · 09:00-09:00 MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>EGUAZTENA, 26</b> · 09:00-09:00 BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>EGUENA, 27</b> · 09:00-09:00 GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
--	---

### Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



#### GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zoztu egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozaturgozotegia



Zorionak, **Txaber!** 14 urte ja gure bizitzan agertu zinenetik. Oso harro gaude zutaz. Jarraitu zaren modukoa izaten. Maite zaitugu! Aitaxoren eta familiaren partez.



Apirilaren 13an eta 17an urteak egin dituzte **Inmak** eta **Mariak!** Zorionak eta urte askotarako! Mosu bana etxekoen partez.



Apirilaren 22an **Uxue** Mantzizidorren urtebetetzea da. Xuban, Katrin, Lur eta Gaizkan partez mosu handi-handi bat. Maite zaitugu!



Zorionak, laztantxo, etxeko danan partez. Ama, Jabi, Haizea, Julen, Amets, Lur, Maguie, Oreo, Goku, Boo eta familia guztiaren partez.

### Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 11° / 19° 🌧️

ASTELEHENA 🌧️ 11° / 23° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 12° / 25° ☁️

DOMEKA 🌧️ 8° / 20° 🌧️

MARTITZENA 🌧️ 11° / 23° ☁️

EGUENA 🌧️ 14° / 30° ☁️

arizmendi ikastola



LAN BIDE HEZIKETA

ZATOZ ATE IREKIETARA!

Apirilak 26  
18:00etan  
Ferixalekuan  
(Arrasate)

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Osasun larrialdiak

Mikroinformatika sistemak eta sareak

Erizaintzako zaintza osagarriak

# "Bacon Cheese sandwichak du arrakastarik gehien"

Hego Korean ezaguturiko produktua bertakotu eta Naia Parrak Revuelto janari zerbitzua ipini du martxan Madrilgo Chueca auzoan, Sandra Lauzirica gasteiztarra bidelagun duela



**Naia Parra Vila**  
Ekintzailea  
DURANGO | 2000

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**  
Ekintzailetzak erakarrira murgildu zen Naia Parra durangarra Revuelto proiektuan, Sandra Lauziricagaz batera. Lidergo Ekintzailetza eta Berrikuntza-LEINN ikasketak amaituta, 2021ean praktikak egitera joan ziren biak Madrilera (Espainia). "Han ikusi genuen berrikuntza asko dagoela ostalaritza arloan, jendea gauza berriak probatzeko prest zegoela", dio durangarrak. Bada, proiektu berri bat sortzeko momentua zela erabaki zuten.

Hego Korean ezaguturiko produktu bat du oinarri Revuelto.

Bai, apur bat ikertuta ikusi genuen

beste herrialde askotan ere bazezagoela. Proba asko egin genuen produktu definitiboak aurkitzeko: saltsak, ogia... Hego Korean ezaguturiko produktua Madrilera egokitu gura genuen, eta bertako zaporeekin uztartu: tipula karamelizatua, ahuntz gazta, trufa saltsa... Hiru hilabetez egon ginen han, unibertsitateko bidaia batean. Zerk harritu zintuen gehien Hego Koreatik?

Harrigarria dirudien arren, janari korearra ez zitzaigun asko gustatu; oso pikantea da guretzat. Baina herrialdea oso berezia da. Xehetasunei ematen dieten arreta gustatu

zitzaidan gehien. Kafetegi guztiak ederrak dira, arreta handiz apainduta eta janaria menuko argazkien

**Harrigarria dirudien arren, janari korearra ez zitzaigun asko gustatu; oso pikantea da guretzat**

berdina da beti. Ostalaritzan joera guztiak muturrera eramaten dituzte eta zerbait modan ipintzen deanean, oso-oso modan ipintzen da.

Ilara luzeak omen dituzue zuen Revuelto sandwicha erosteko. Itxaroten zenuten halako arrakastarik?

Gustukoa izango zela pentsatu genuen, guri asko gustatzen zaigu eta. Baina, egia esan, ez genuen horrenbesteko arrakasta espero. Foodie influencer asko etorri da eta milioika ikustaldi dituzten reel-ak ipini dituzte, eta horrek komunikabideen interesa piztu du. Gainerakoa bakarrik etorri da. Hala ere, badakigu oso gaxa dela arrakasta honi eustea.

**Zeinek du arrakastarik gehien?**

Bacon Cheese-ak. Dena dela, Burrata Pesto zaporeduna ere hasi gara saltzen orain dela gutxi, eta gure bezeroen berbetan horixe da hobereena. Sandwich guztiak gauza batean dute antza, hiru osagai hauek dituzte: brioche ogia, arrautza nahasia eta sweet mayo saltsa.

**Sandwich guztiak gauza batean dute antza, hiru osagai hauek dituzte: brioche ogia, arrautza nahasia eta sweet mayo saltsa**

**Zein da zuen erronka? Euskal Herrian aurkituko ditugu inoiz zuen sandwichak?**

Revuelto gehiago zabaldu gura genituzke, Madrilen lehenengo eta beste hiri batzuetan ondoren. Erronkarik handiena laster horretarako finantzaketa lortzea da, beste enpresaburu batzuek gure ideia asko kopiatzen dabiltzalako. Ziurrenik inbertsio txanda bat zabalduko dugu. Revuelto Euskal Herrira eramatea ere gustatuko litzaiguke, etorkizunean etxera bueltatu gura dugulako.

**Gomendatuko diguzu sandwich bat?**

Burrata Revuelto dut gustukoena. Alzheimerra dutenentzat karta pertsonalizatuak ere sortu izan dituzu, beste ikaskide bigaz.

Bai, Medori. Oso proiektu polita izan zen, eta arrakasta handia izan zuen gainera. Murala ere egin genuen Barakaldon, zaharren egoitzakoekin. Oso hunkigarria izan zen.

## Politikan

Markel Sanchez Zelaia Behargina



## Konplexua da

Dur&go, Abadiño Cycling Academia, Naiz Market, Dendak Bai Fest, Indar Xsport, Iurretako Beer Azoka, Book Trailer lehiaketa, Beittu Art Factory, Durangaldea challenge, Abadiño Koba Live, Nevadah, Chiloé urban wear, Nebraska, Iruko by Sushi Gallery, Martxel Burger, Dossis Design, Ardo Saltsan Fest, Open Shop, Tabira Army, Hontza extreme, Undarri Bike&Snow, Sweet & Vicious, Sermond's, Garai Brewing Company, Bizibike, 80's, Euskoil, CrisLa sweets, Emakumeen Winter Series, Durandog, Izurtza Nordic Walking ibilbidea, Fair Play Durango padel kluba, Abadiño Green Series, Mocker's, Zornotzako Kine Rally lehiaketa, Fundifest, Durangaldea Running, Baqué Cycling Team, Sorland, Laureano Fight Team, Arima Basque Brand, Baske Street Boys, Basque Crossfit Txapelketa Txapeltxiki Durango, Eroski Center, Duranbox, Etxera! Free them all, Atxondoko Pumptrack pista, Lebario Precision Moulds, Arkoworking, Azterlan member of Basque Research & Technology Alliance, Euskaldi low cost Berriz, Mañary expert, ZR Basque Country Durango Fight Factory, Monkey's Lab, Elorrioko Basque-land nazioarteko ziklokrosa, Unknown Strength harrijasotze erakustaldia, Durango Sport Club & Spa, Amorebieta-Etxano cup, Worth it, Gertufest, Level Seven Underwear, Anonyme Popular, Keep Real, Rock Izar Records, Eroski City, Anthropolos Box, Izar Cutting Tools, Iria food, Verter Recycling, Urkiol, Orbea Factory, Durango Night Urban Race, Basque Country Bike, eta abar, eta abar Durangaldean barrena. Leku barik geratu naiz esan gura nuena esateko, eta, laburtzeko, azalpena konplexua dela esango dut, you know what I mean.

**SAN ROKE BARRIA**

**ONGI ETORRI SAN ROKE BERRIRA**

**Eskuratu zure etxe berria Durangon**

**Gozatu eremu komun zoragarriez.**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea, 1 Durango

**sukia** 946 46 20 41  
Zure etxean zaude Estás en tu casa [www.sukia.com](http://www.sukia.com)

Gimnasio

Pilates

Parking

Coworking

Ludoteca